



Festara!

Atzo hasi eta astelehenera arte festa giroa nagusi Altsasun / 11-14



Lehen sektorearekin hitzordua

Igandean Irurtzungo eta Arakilgo bertako ganadu azokaren 6. edizioa izango da / 7

Irurtzundarren etxeraino iritsi da zuntz optikoa eta harekin sarerako sarbide azkarra / 9

Dantzak biltzen egindako lanagatik txistularien Urrezko domina jasoko du bihar Sagasetak / 22

Altsasuko Otadiko Kristo Deuna Pilota Torneoko finalak larunbatean jokatu dira, 22:00etan / 15

Euskal Herriko 1. mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa igandean Lakuntzan / 17



Bioitza kanpineko ur-hornidura ziurtatzeko lanak egin eta mustu dituzte / 9

Sakanaoptika
optikan eta autorektibo teknologian

2X1
GRADUATUTAKO BETAURREKOETAN

EMPORIO ARMANI

Guaixeren Udako X. Argazki Lehiaketak sarituak ditu

Uda hasieratik irailaren 3ra arte sakandarrak kameraren bidez jasotako irudiak guaix.eus-en elkarbanatzera gonbidatu genituen. Guztira 47 argazkik hartu dute parte Guaixeren X. Argazki Lehiaketan

Zaila da udari agur esatea: oporrak, bidaiak, eguraldi ona, igerilekuak, hondartza... Hala ere, argazkiek udan bizitako unetxoak betiko gogoratzeko aukera ematen dute. Hortaz, guaix.eus web orria sakandarren oroimen ahaztezinako bilduma bihurtu da Udako X. Argazki Lehiaketari esker. 47 argazki aurkeztu dituzte.

Lehiaketan aurkeztutako argazkien artean bi sari zueden banatzeko. Bata, epaimahaiarena, Eroski Bidaiak bidaiia-agentziak oparitutako Costa Dauradan hiru lagunendako (bi nagusi eta ume bat) zazpi gaueko egonaldia da. Kiki argazkilaria lagunzarekin, epaimahaiak erabaki du Udako X. Argazki Lehiaketaren argazki hoberena Laida deitutakoa dela. Izaskun Bengoetxea Delgado irintarra da argazkiaren egilea. Iru-diaren lehenengo planoan txankletak ageri dira, atzean itsasoa dagoela.

Bigarren saria Errigorako lotea da eta www.guaix.eus web orriko bisitariak eman dute. 1.356 bozka jaso dira eta internauten 358 botok erabaki dute Iluntzean uraren ertzean dela Udako X. Argazki Lehiaketako argazki politena. Irakurleek aukeraturako argazkian ere hondartza ikusten da, iluntzen ari dela argiloarekin. Argazkia Iosune Razkin Iglesias uhartearakildarrarena da.



IZASKUN BENGOTXEA



IOSUNE RAZKIN



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Etxe pasiboetarako egokia

5 9000

Isolamendu nukleo indartsua

IKD

Beirak lehorrean jarrita

STV

Aparteko azala koloreztatua

STV

Epaimahaiaren finalistak



IRATXE SORIANO



FERNANDO MORENO



AINHOA IMAZ ASENSIO

Erabiltzaileen finalistak



AMAIA URRIZA



MAITE URRIZA



SERGIO MORO

Erabiltzaileen botoak

Guztira 1.356 bozka izan dira

358 Iluntzean uraren ertzean. Iosune Razkin Iglesias

298 Alpetako Milak behiekin. Amaia Urriza

201 Tre cime di Lavadero, Dolomitak. Maite Urriza

153 Di Cerezza Lakua. Sergio Moro

35 San Donato - Beriain. Xabier Razkin

34 Herri baten isla. Kanbodia, Abuztua. Iratxe Soriano

34 Dubrovnik. Ander Reparaz

33 Veneziako urak zeharkatzen. Ander Reparaz

32 San Donato - Beriain. Xabier Razkin

26 Khmerren iluntasunean argia. Kanbodia, Abuztua. Iratxe Soriano

www.guaixe.eus-en parte hartzaile guztien argazkiak ikusgarri daude



ASTEKOA

MARIAN MENDIOLA BARANDALLA

Xapa, Rafa

Oporretatik bueltan Guaixekoek argitaratu duten alean jada historia dirudien albistea irakurri dut, mende-laurdena duen ezinbesteko liburu baten berri hain zuzen. Duela 25 urte Rafael Carasatorre Vidaurrek *Barranca-Burunda* liburua aurkeztu zuen, baina hura argitaratu aurretik, makina bat lan egindakoa zen. Neska-mutil koxkorak ginenean, egilea, Xapa izenarekin ezagutzen genuena, zapatain aritzen zen. 80. hamarkadan gazte ginenontzat. Tentagarriak ziren bere erakusleihoko "Paredes" takoidun zapatilak eta puri-purian zeuden atzerritarren behatz-txankletak (ibairako ibiltzen genituen gomazko zapatilen eta elurretako botitoen aldean "modernoak" ziren gero!).

Bere dendara sartzean, pegamendu eta larru usainaz gain, jakintza antzematen zen, zigarro kedarrarekin batera. Eta gu jabetzen ez baginen ere, zapaten inguruan nahas-mahasean zeuden paper horiek eta itxura ezberdinetako "harri eta tresna" guzti-guztiek bazuten bere zeregina. Denda hartan zapatari ogibideari zegokien egitekoak egiten ziren segur aski, baina autorearen uzta ikusita txingurri-lana ere bai. *Barranca-Burunda* liburua txingurritegi hartan sortua izanzen zen, akaso, "lantxurra" eginez (lan nekosoa, gaizki ordaindua eta gutxi estimatua). Eta ez hori bakarrik, gogoan dut liburuarren salmentarako egileak erabili zuen estrategia aitzindaria, ia-ia gaur egungo crowdfunding-aren parekoa.

Zapatak konpontzera edota erostera joaten zen edonorentzat erraza zen berrikeretan, eztabaidan edota hausnarrean zenbiltzanekin topostatzea, gazteak gehienetan. Konparazio batera, garai bateko literaturagile-zaleek tertulian aritzeko erabiltzen zuten kafetegien modukoa zen zapata-denda hura. Agian gehiegitxo esatea litzateke, baina, denboraren poderioz begiratu gero denda hura etnografiaren, toponimiaren, historiaren, hiztegitzaren, arkeologiaren... Café Gijón modukoa izan zen. Eta, nola ez, gazte askorentzat "Gaztetxea" ere bai.

Horregatik guztiagatik, egin diezaiozun bide Carasatorrek liburuan bertan adierazten zuenari: obraren asmoa da Arakil ibaiak Aizkorbe eta Ziordia artean zeharkatzen duen lurraldea ulertzen laguntzeko oinarriak ematea. Guaixeko albistea irakurri duzuenok edota Rafael Carasatorreren ibilbidearen jakitun zaretenok badakizue egindako lanari segida eman dakiokela, gure ibarrean landa-lana egiteko aukera bada oraindik!

GUTUNAK: Karaktereak, gehenez: 1.900 (hutsuneak barne). **GUAIXEK** eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Haurrei eta Nerabeei Arreta Emateko Ekipoak

SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK

Irailetik aurrera Nafarroako Gobernuak bermatua eta doakoa den beste zerbitzu bat jarri du martxan gure eremuan: Haurrei eta Nerabeei Arreta Emateko Ekipoak (HNAEE) hedatu ditu Iruñerrian eta Foru Komunitateko Iparraldean, horrela aukera lurralde osora zabalduz. Ekipo hauek gizarte-zailtasunean dauden gazteak artatuko dituzte, erdi-mailakoak direnean, larritasun txikienetako kasuak Oinarriko Gizarte Zerbitzuek landuko dituztelako eta larritasun handikoak direnak, arreta

espezializatua behar dutenak, Familia eta Adingabeen Zuzendariordetzak.

Helburua da haurrei eta haien familiei arreta ematea, Oinarriko Gizarte Zerbitzuen eskumen eta baliabideak gaintzen diren kasuetan; adingabeen ongizatea eta dituzten beharrak bere osotasunean bermatzea dute xede, eta familiak elkarrekin mantentzea, behar duten laguntza emanaz. Gizarte langileek, hezitzaileek eta psikologoek osatzen dituzte lan-taldeak.

Beren zereginak dira Gizarte Zerbitzuei eta beste eragile soziokomunitarioei

prebentzioan laguntzea, kasuen hautemate goiztiarrean, ikerketa, balorazio eta esku-hartzean, eta babeserako beharrezkoak diren baliabideak sortzea lan-sarearen bitartez. Beraz, HNAEEak, arreta eskaintzen diete haur eta nerabeei, familiei, Gizarte Zerbitzuei eta eragileei.

Hemezortzi urtetik beherako haur eta nerabeei ematen diete arreta; sei urtetik beherakoek eta sei eta hamabi urte bitarteko haurrek dute lehentasuna, bai eta haurrak babesik gabe uzteko arrisku handia duten familiek edo guraso-figura ere.

OBJEKTIBOTIK



Kataluniari keinuak

Sakanako hainbat etxetan Kataluniako banderak edo esteladak jarrita daude urte guztian. Arbizuko eta Etxarri Aranzako sarreretan jarritako

mastetan marradun hori-gorridun bandera ikus daiteke. Eta, Diada edo Kataluniako Egun Nazionala izan dela eta, esaterako,

Altsasun Kataluniako preso politikoen askatasuna aldarrikatzen duten banderolak eta lazo horiak agertu dira udaletxe parean.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
gk@komunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Idoia Artieda Larrazza

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
lune Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Aralarko turismo bulegoa oraindik irekia

Irailaren akaberara arte emanen die zerbitzua bisitariari. Altsasukoa igandean itxi zen

SAKANA

Aralar Elkarrekin, Sakanako Garapen Agentziak eta Plazaola turismo partzuergoak elkarrekin bisitariendako informazio puntua jarri dute Aralarko santutegiaren ondoan. Bigarren urtea da turismo informazioa ematen dela santutegi ondoan. Maite Perurena garilean hasi zen turistei harrera egiten eta oraindik mugimendua dagoenez, irailaren akaberara arte segituko du. Dagoeneko atea itxi dituen Altsasuko Baratzekobide plazan dagoen tren lokomotoran zegoen turismo bulegoa da. Unai Otermin Benito bisitariari argibideak ematen garila hasieratik igandera arte egon da. Alde handiz, Aralarko informazio guneak bisitari gehiagori ematen die informazioa Altsasukoak baino.

Nafarroako Gobernuak jakinarazi duenez, Urbasa-Andia natur parkeak urtero 150.000 bisitari inguru jasotzen ditu. Kopuru horrekin foru geografiko natura-gune bisitatuena da. Gobernuak jakinarazi zuenez, 40.000 bisitari izan ziren joan den urteko garilean eta agorrilean. Gainera, Urederrako iturburuak bisitari ugari erakartzen ditu.



Kontseiluko kideak manifestazioaren aurkezpena egin zuten Iruñean. KONTSEILUA

Euskararen Lege berria aztergai dago

Nafarroako Parlamentuan Euskararen Lege berria egiteko batzordea lanean da. Adituk entzun ondoren, batzordeak lege proposamena egiten du. Kontseiluak euskara Nafarroa osoan ofiziala izateko manifestazioa deitu du lastailaren 27rako

SAKANA

Legelariak, sindikatuak, ordezkariak, Euskaltzaindiak, unibertsitate irakasleak, Behatokiak... Apirilaz geroztik horiek guztiek euren iritzia eman dute Nafarroako Parlamentuan. Izan ere, bertan bada batzorde berezi bat eta haren egitekoa da Euskararen Lege berri baterako proposamena idaztea. Nafarroako Parlamentuak onartutako ebazpenean jasotako hiru printzipioak jaso beharko ditu proposamenak: herritarren hizkuntza eskubideak betetzea, hizkuntza zonifikazioa gainditzea eta ofizialtasuna Nafarroa osora hedatzea, lurraldean dauden errealitate soziolinguistiko des-

berdinak aintzat hartuta. Oporren ondoren, batzorde berezia lanean bueltatuko da hilaren 19an eta han iritzia gehiago entzuten dira.

Hori guztia jakinik Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak "nafar guztiei euskaraz bizitzeko eskubidea bermatuko dien ofizialtasuna" aldarrikatu du. Eta eskaera hori ozen zabaltzeko Iruñean manifestazioa antolatu du, lastailaren 27an, 17:00etan. Kontseiluko idazkari nagusi Paul Bilbaok deialdiaren aurkezpenean esan zuenez, "behingo, euskaldun guztiak bereizkeriarik gabe, berdin hartuko dituen egoera sortzeko aukera ikusten dugu. Euskal-

dunok indar egingo dugu herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatuko dituen egoera sortzeko".

Aukera

Bilbaok gaineratu zuenez, "orain ikusten dugu aukera euskaldunondako egokia izango den egoera bermatzeko. Lege berria, hizkuntza-eskubideak aitortuko

Euskaraldia

Euskararen erabilera handitzeko ariketa 10 herritan prestatzen ari dira.

dituena, egin behar da. Lortu daitekeen zerbait dela uste dugu eta aukera hau pasatzen uzten baldin badugu, eragina epe luzekoa izango dela uste dugu". Eta gaineratu zuen: "bada garaia urteetan egindako kalte erreparatzeko". Euskaldunak euskaraz bizitzeko zonifikazioa bukatzea eskatu zuen Kontseiluko buruak, "pertsonek arteko bereizkeria eragiten duen egoera" delako.


Kontseiluak egoera berrira pasatzeko elkarlanerako deia egin zuen: "guztioi eragiten digun zerbait den neurrian, guztioi dagokigu, bakoitzari bere lekutik, dagokiona egitea. Eragileekin partekatuko dugu egoera eta haiek ere honen parte izatea nahi dugu. Ildo horretan egingo dugu lan". Eta dei zehatza egin zien alderdi politikoei: "neurri batean haien esku dago aldaketa. Euskaraz bizi nahi duten herritarrei erantzun egokia eman behar diete. Erantzukizunez jardutea dagokie, haien ardura baita. 2011n izandako jarrera errepikatu dezatela eskatzen diegu. Oposizioan zeudenean erakutsitako irmotasuna izan dezatela benetako aldaketa lortu ahal izateko".

Bermatu baino, mugatu

1986an sartu zen indarrean Vasucenceren Legea eta, ondorioz, nafarrek euren "hizkuntza-eskubideen urraketa sistematikoa pairatu" dutela nabarmendu zuen Bilbaok. Gogorazi zuen legeak Nafarroa hirutan banatu zuela, eta, ondorioz, lurraldearen zati handi bat eskubidez gabetu zuela, euskaraz bizitzeko aukerarik gabe. "Ñabardurak-ñabardura" Nafarroak hirutan zatituta jarraitzen duela gogorarazi zuen.

Esataria: Mainer Gaurko gaiak:

- Irurtzungo eta Arakilgo bertako ganadu azokaren aurkezpena
- Altsasuko Gurasoak presoen gerturatzearen inguruko balorazioa
- Haize Berriak Los del Rayo sinfonikoa kontzertuaz losu Rubio



Ostiralero 9:30ean
SAIOA

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara

107.3 FM
beleixe
guaixe.eus-en ON LINE



Tailerra Nafarroako emakume elkartei zuzendua izanen da.

Administrazio elektronikoa emakume elkartei gerturatzeko

Irurtzango kultur etxean tailerra izanen da hilaren 24an, astelehenarekin, 17:00etatik 19:30era

SAKANA

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren (INAI / NABI) bitartez, emakume-elkarteendako prestakuntza-tailerra antolatu du irailerako. Helburua da generoarekin lotutako eten digitala murriztea, ekipo informatikoak eskuratzeari eta gailuak eta Interneta erabiltzeari dagokienez. NABIk beharrezkotzat jo du prestakuntza hori ematea. Izan ere, urritik aurrera Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Erkidearen 39/2015 Legea aplikatzen hasiko

da, eta lege horrek pertsona juridikoentzat halabeharrezkoa egiten du bitarteko elektronikoen bidez eta sinadura digitalarekin aritzea herri-administrazioekin, edozein izapide egitean.

NABIk sinadura digitalari eta administrazio elektronikoiari buruzko zazpi prestakuntza-saio antolatu ditu. Emakume-elkartei zuzenduta daude ikastaro horiek. Saioetako bat Irurtzunen izanen da. Saioan elkarte bakoitzaren sinadura digitala sortzeko eta izapide elektronikoen erabiltzeko jarraibideak eman dituzte.

Jatormanen kontziliazioa lantzen hasi dira

Lana, familia eta norberaren bizitzaren kontziliazioa lantzen duen Reconcilia programan parte hartzen hasi da. Enpresaren egoeraren diagnostia egiten dute eta ondoren neurriak zehaztuko eta indarrean jarriko dituzte

ALTSASU

Nafarroako Emakume Enpresari eta Zuzendarien Elkarteak (NEEZE), Ekonomia, Enpresa eta Lan Zuzendaritza Nagusiarekin elkarlanean, Reconcilia Zigilua ematen du duela 13 urtetik. Lana, familia eta bizi pertsonala bateragarri egiteko aktiboki lan egiten duten enpresei eta erakundeei aitortza egiten dien zigilua da aipatutakoa. Hura lortzeko enpresek eta erakundeek metodologia bat segitu behar dute. Hamar enpresetako eta erakundeetako ordezkariak, tartean Jatormango Zuriñe Gikoetxeak, estreinako prestakuntza saioa jaso zuen herenegun.

Aurreneko informazio saio horren ondoren enpresak eta erakundeak eurei egokitutako tutoretza fasera pasako dira. Hainbat tutoretzaren bidez kontziliazio arloan bakoitzak zein egoera duen eta zein behar bezei dituen aztertzen da. Behin azterketa eginda, kontziliazioan



Enpresetan neurriak hartu ondoren ebaluatu eta zigilua lortzeko aukera dute. NEEZE

aurrera egiteko eman beharrezko pausoak kronograma batean jasotzen dituzte. Han, besteak beste, jasotzen dira: zuzendaritzak langileriarri jakinaraztea kontziliazio plana ezarriko dela; enpresa barruan kontziliazioa-

ren gaia lantzeko lantaldea sortzea; baleude, indarrean dauden neurrien azterketa, txukun dokumentatu eta sistematizatu eta, azkenik, planaren barruan jasoko diren kontziliazio neurriak zehaztea.

Pentsio duinak aldarrikatuko dituzte Altsasuko festetan

Astelehenean, 11:30ean, Foru plazan eginen den kontzentrazioan parte hartzera deitu dute

ALTSASU

Nafarroako Pentsionistak Martxan, Otsailaren 22ko plataformak eta Sasoiak deituta, pentsio duinen aldeko kontzentrazioak egiten dira Altsasun astelehen arratsaldeetan. Udan ez dute etenik izan eta indarberiturik bueltatu dira. Hurrengo hitzordua festetan denez, 11:30etan eginen dute, Foru plazan.

Hartan pentsiodunak direnak eta ez direnak parte hartzera animatu dituzte. Orain arteko aldarrikapenak gogoraraziko dituzte: “ez dugu ezer eskatzen,

pentsio publikoak borrokaren eta urteetako sakrifizioaren ondorioz lortutako eskubidea dira. Gurea da. Lan erreforma bertan behera uztea exijitzen dugu eta lanbide arteko soldata 1.200 eurokoa eta gutxieneko pentsioak 1.080 eurokoak izan daitezela. Baita alargunenak ere”.

Deialdia

Pello Arregik nahi bat azaldu digu: “ia lortzen dugun jubilatuez aparte borrokara langileak ere batzea. Mugitu beharra dute. Guk ezin dugu betiko mantendu



Asteleheneko bilkuran 90 bat pertsona elkartu ziren.

gerra, gehienetan haiendako izanen den gauza bat defendatzeko. Guk gurea badugu. Baina etorkizuna iristeko dago. Jendeak honi kasurik egiten ez badio, gero, benetan, oso gaizki pasako dute, pentsio penagarriekin utzi-

ko baitituzte”. Migel Anjel Montesinosok datua eman digu: “bada hortik kalkulu bat dioena gaur egun 1.200 euro irabazten duenari 700 euroko pentsioa geldituko zaiola. Horrekin ezin da bizi”.



Olló Altsasuko Geroa Baiko zerrendaburua izanen da

Heldu den urteko maiatzaren 26an Europa, foru eta udal hauteskundeak egiten dira. Altsasuko alkate Javier Olló Martinezek jakinarazi du Geroa Baiko Altsasuko alkategaia izanen dela. Hala jakinarazi du Diario de Noticias egunkariari emandako elkarrizketan. Azaldu duenez, herriguneko kideek eta koalizioak berak konfiantza eman diote.



Irurtzungo eta Arakilgo bertako ganadu azokaren aurkezpena.

Lehen sektorearekin harremana estutzeko

Irurtzungo eta Arakilgo bertako ganadu azokaren seigarren edizioa igandean izanen da, 10:00etatik aurrera. Ekoizle-egileen kalitatezko produktuak eskuratzeko aukera izanen da. Artisauak lanean ikusteko aukera izanen da ere

ALTSASU

Irurtzungo eta Arakilgo bertako ganadu azokak aurten seigarren edizioa izanen du eta hasierako azoka gardenaren espirituari eusten dio: "bertako ekoizleerikiko apustua. Gure lurraiekiko, paisaiarekiko eta ondarearekiko apustua da azoka hau. Aldarrikapen hau gutxienez urtean behin Sakanara ekartzea oso garrantzitsua iruditzen zaigu. Baina egunerokotu behar den aldarrikapena da. Beraz, udalak, erakunde guztiak eta gizartea norabide horretan pausoak ematera animatzen ditugu".

Sakanako Belardi ekoizleen elkarteko kide Aritz Ganboarenak dira aurreko esanak. Elkarrekin horrekin batera azokaren antolakuntza auzolanean egiten ari dira Arakilgo eta Irurtzungo Udalak, Nafarroako Gobernuak, Sakanako Garapen Agentzia, Plazaola turismo partzuergoak, Idiazabal jatorri izendapena, Artzain gazta elkarteak, Arbaso artisauen elkarteak eta EHNE-Bizilur. Lehen sektoreari eta elikadurari buruzko hausnarketa zabaldu nahi duen esparrutzat jotzen dute azoka antolatzaileek. Bertako landa eremuarekiko eta bertatik sortutako produktuekiko jendearen inplikazioa handitu nahi dute.

Bost urteko ibilbidearen ondoren, azoka egonkortuta dagoela esan dute antolatzaileek. Aurreko urteetako arrakasta bera espero dute, horregatik, jendarteari igandean egun oso-rako prestatu duten egitarauan parte hartzeko gonbidapena egin diote. Ekoizleei zuzenean erosteko aukera izanen da eta haiei

ekoizpenari buruzko galderak egiteko aukera izanen dute bisitariek. Izan ere, azoka ardura partekatuko nekazaritza filosofia aldarrikatzeko gunea da. Hau da, zuzenean eta ekoizleen parte hartzean oinarritutako eredua. Hainbat sektoretako ekoizleak eta eragileak bat egiten dute asmo horretan, azoka antolatuz.

Dokumentala

Sakanako ikastetxeetan zer jaten den, horri buruzko hausnarketa martxan dela jakinarazi zuen Ganboak: "zer egin daiteke jangela horietan gure haurren elikadurarekin?" Sakanako Garapen Agentzia eta zenbait guraso elkarteak abiatu duten ikastetxeetako elikadurari buruzko sentsibilizazio kanpaina da hori. Horregatik, igandeko azokaren egitarauaren osagarri, antolatzaileek Nani More i Claraboiaren "El plat o la vida" dokumentalaren emanaldia eta solasaldia antolatu dute. Hiriberri Arakilgo kontzejueteko erabilera anitzeko gelan ikusteko aukera izanen da heldu den ostegunean, hilak 20, 19:00etan. Sukaldari baten esperientziatik abiatuta eskola-jangela jasagarria posible dela azaltzen du dokumentalak. Joan den urtean izandako emanaldiaren segida da aurtengoa.



EL PLAT O LA VIDA

Egitaraua

Goizean zehar

Nekazaritzako lanabesen erakusketa eta hori antolatzen duen elkarteak goxokiak botatzen dituen kanoia ekarriko du; ohiko soka lantzea; kale animazioa (Iskidiren mitologia-pertsonaiak, joaldunak, trikitilariak eta gaitariak); taloak; Irurtzungo, Arakilgo, Sakanako eta Plazaolako turismo informazioa; tailerrak eta ogibideak eta baserri jokoak.

Frontoi irekian, abereen gunea:

Latxa ardi arpeltz eta mutur gorriak (Aslana), Nafarroako rasa ardi (Arana) eta sasi-ardia (Sasiko), behi piriniarra (Aspina), nafar kasta eta betizua (Asbena), ahuntz pirenaiakoa, euskal txerria, pottokak, Auritz arrazako zaldi-behorrak (Ascana), Nafarroako jaka (Jacana), euskal astoak eta euskal oiloak (Eoala elkarteak). Azken horien hainbat mota izanen dira ikusgai. Gainera, elkartekoen bertako oiloen katalogazioa eta puntuazioa egingen dute.

Foru plazan, azoka gardenak:

Belardiko eta EHNE-Bizilurreko hainbat ekoizle postuak jarriko dituzte: Albi (ardi gazta), Balda-Artola (ardi gazta), Legarbe (karakolak eta barazkiak), Jeingenekoa (behi-esnekiak), Aitor Mendoza eta Oihane Rodrigo (euskal txerriak), Joxan (ahuntz gazta eta arrautza ekologikoak), Lorentxo Sarratea (euskal txerria), Karlos Zabala (marmeladak), Fungel Sutil (loreak eta landareak), Lakabe (ogia, pastelak eta pastak), Arizkuren (ukenduak eta produktuak), Ana Sabando (ukendu ekologikoak eta naturalak), Mendiko (ardo ekologikoa), Lodosa (pikillo piper erreak), David (marrubiak, fruituak eta barazkiak), Joseba (eztia, olio ekoizlea...)

Lizarra eta Amaia kaleetan, erakusketak eta artisautza:

Erabili (ehuna), Anuahel (kosmetika), Larruzko Eskua (larrua), Cesar Errea (zura), El Txoko de la Artesania (kilikiak), EGN Creaciones (imitaziozko bitxigintza), IO.Zeramika (zeramika), Ttakun-Takun (jostailuak), Emeberhiru Bitxiak (bitxigintza), Artisai (ehuna), Zapatarri (oinetakoak). Brun forjariak (forja erakustaldia) eta Eguzkilore Artisautza (haurrendako tailerra).

Gazta lehiaketa, plazan:

12:00etatik aurrera. Gazta onenarendako saria jendeak emandako botoekin erabakiko da aurten ere. Botoa ematen dutenen artean zozketa izanen da eta sariak banatuko dira 14:00etan.

Bazkaria eta herri kirol erakustaldia:

Belardik bertako produktuekin bazkaria Barazkigunean, 15:00etan. Txartelak igandean bertan erosteko aukera izanen da. Foru plazak, 18:00etatik aurrera, herri kirol erakustaldia hartuko du: Irurtzungo harri-jasotzaile eskola, Inaxio Perurena eta Razkin, Lizaso, Pagola eta Jauregi aizkolariak lanean ikusteko aukera izanen da.

SAKANA
Itsasi AEK euskaltegia

Izena emateko azken eguna:
irailaren 21a

Gartzia Ximenez 46, behea
ALTSASU
948 468 258
sakana@aek.eus

Diru-laguntzak

Sakanako Mank: BEKAK

aek euskara praktikoa

Zu hemen zaude,
AEK ere bai



EUSKARA-IKASTAROAK



Gurasoak prentsaurrekoan. @ALTSASUGURASOAK

Auzipetuak gertuko kartzeletan, ez aske

Altsasuko auziagatik preso dauden zazpiak Iruñeko eta Zaballako kartzeletan daude dagoeneko. Altsasuko Gurasoek behin-behineko espetxealdia bertan behera uztea eta aske uztea eskatu dute

ALTSASU

Iñaki, Oihan eta Jokin Madrillgo espetxeetatik Euskal Herrikoetara ekarri zituzten ostiralean. Azken horren lekualdaketaren berri beste preso baten bidez jakin zuen familiak. Arabako Zaballa espetxean Aratz, Jon Ander, Julen, Oihan eta Jokin daude eta Iruñekoan, berriz, Adur eta Iñaki. Jokinek Iruñekora lekualdatzea eskatu zuen, baina Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiaren "administrazio akats" batengatik Zaballan dago. Adurrek, Jokinek eta Oihanek urte bat eta bederatzita hilabete egin dituzte urrunduta; Aratzek, Iñakik, Jon Anderrek eta Julenek, berriz, lau hilabete.

Altsasuko Gurasoek adierazi dute "pozik" daudela semeak gertu dituztelako, baina "oso garbi" dute "etxean aske" egon beharko luketela. Hori lortzeko "hemendik aurrera indarra eta ahaleginak" horretara bideratuko dituzte. Atzera ere, Altsa-

suko Gurasoek azpimarratu zuten, "gure indarra eta ahaleginak gure semeen askatasuna lortzearen alde daude. Behin-behineko espetxeratzea kaute-lazko neurriaren erabilera maltzurra da, beste zigor bat gehitzen da". Semeak preso mantentzea "neurrigabetasun izugarritzat" eta "bidegabekeriatzat" jo zuten, "proporzionaltasunik gabeko justizia ez da justua". Epai irmorik ez dagoela gaztigatu zuten eta preso mantentzeak "prozesuaren alde mendekaria erakusten" duela nabarmendu zuten.

Urruntzeaz eta sakabanaketaz adierazi zuten "errealitate mingarri, arriskutsu eta izugarria" pairatu dutela. Espetxeetako Lege Orokorrean jasotakoa gogora ekarri zuten, "presoak, posible den guztietan, beren bizilekueetatik gertu dauden espetxeetan egon behar dira". Urruntzearena Euskal Herriko familia askoren errealitatea dela ere gogoratu zuten Altsasuko Gurasoek.

Deia

Auzipetuen gurasoek gogorazi zuten Espainiako Auzitegi Nazionalak defentsen, fiskaltzaren eta akusazioen helegiteen inguruan ebatziko duenaren zain daudela. Baina jakinarazi zuten, "askatasuna lortu arte" Espainiako Auzitegi Gorenera, Espainiako Konstituzio-Auzitegira eta Estrasburgoko Giza-eskubideen Auzitegira jotzeko asmoa dutela. Jendarteari ohar-tarazi nahi izan ziotenez, "etorkizunean agian beste mobilizazio bat egingen dugu". Altsasuko Gurasoek eskertu egin zuten Euskal Herritik, Kataluniatik eta penintsulako beste herrietatik udan jasotako elkartasuna,

HELEGITEAREN ZAIN, AUZIA EUROPARAINO ERAMATEKO PREST AZALDU ZIREN GURASOAK

"ez gaudela bakarrik gogora ekartzen digu".

Iñaki

Iñakiren lekualdatzea ostiralean hasi zen eta horren aitzakiarekin Iñakiren familiari hura bisitatzeko eta aurrez aurreko bisita egiteko eskubidea ukatu zitzaion. Ostiralean iritsi zen Iruñera eta familiari ez zioten bisita egiten utzi eta asteburuan ere ezin izanzen zutela esan zieten. Azkenean, lortu zuten. "Arbitrariorotasuna" salatu zuten.



Haragi zatia. FORUZAINGOA

Barkos Sanchezekin, auziaz ere

Nafarroako presidente Uxue Barkos Berruezik atzo jakinarazi zuen Espainiako presidente Pedro Sanchezek kargua hartu zuenean bilera eskatu ziola. Barkosek jakinarazi zuenez, oraindik ez du erantzunik jaso. Lehendakariak jakinarazi zuenez, erkidegoarendako garrantzitsuak diren hainbat gaiez hitz egiteko gonbidapena zen. Bi presidenteen arteko bileran, arlo politikoan aztertu beharrekoen artean dago, besteak beste, Altsasuko auzia. Beti ere, "botereen banaketari erabateko errespetua izanik".

Horixe jakinarazi zuen Barkosek Ahal Dugu-Orain Bai taldeko Laura Perez Ruano parlamentariaren galderari erantzunez. Perezek "pozez" hartu zuen jakitea Altsasuko auzia "lehenetsunezko gaia" dela. Eta gaineratu zuen etorkizuneko edozein gobernu akordiotan, bai Nafarroakoan, bai Espainiakoan, Altsasuko auziak lehen mailako gaia izan beharko lukeela. Auzia funtsezko eskubideen defentsa gisa hartu zuen. Preso hurbiltzea "keinu politikitzat" hartu zuen. Baina fiskal nagusi berriak zigor eskaerak ez aldatzea salatu zuen.

Iltzeak zituen txakurrendako jatekoak bota zituzten

Txakur batek jan eta jabea garaiz ohartu zelako ebakuntza egin eta salbatu ahal izan zuten

UHARTE ARAKIL

Iltzeak zituen haragi puska bat jan zuen txakur batek agorrilaren 13an. Animaliak, bere jabearekin paseatzen ari zela, lurrean botata zegoen haragi puska ikusi eta jan zuen. Jabea konturatu zen lurrean zegoen haragi hark barruan metala zuela eta saiatu zen txakurra urruntzen. Baina ordurako saltxitxa zati bat jana zuen.

Jabeak bi gauza egin zituen. Alde batetik, txakurra albaiariengana eramane zuten berehala eta erradiografia bidez iltzeak zituen haragia jan zuela baieztatu ahal izan zuten. Bi iltzeak ateratzeko txakurrari ebakuntza egin zioten. Bestetik, jabeak Foruzaingoa salaketa jarri zuen. Gertaera Ingurumen-Babeserako Brigada ikertzen ari da.

Jabeak kartelak jarri ditu herrian eta iltzeak zituen haragia jarri duen pertsonari zuzendu zaio. Lehenik eta behin adierazi dio hori ez dela arazoak konpontzeko bidea. "Bizitzan zerbaitek molestatzen bazaitu, aurpegia eman, hitz egin eta konpontzen saiatu. Ez dakizu zer nolako oinazea eragin duzun. Txakurrek molestatzen bazaituzte, euren jabeekin hitz egin. Animaliak ez du inongo errurik eta ez du sufritzea merezi".

Hobekuntza lanak Bioitza kanpinean

Ur-hornidura bermatzeko 225.000 euroko lanak egin dituzte Nafarroako Gobernuak aginduta. Lehengo ur hartunetik kanpinera arteko ur-sarea berritzea garestia zenez, kanpinean putzua zulatu eta ur-biltegia jarri dute

SAKANA

Nafarroako Gobernuak Turismo Zuzendaritza Nagusiak Urbasan dagoen Bioitza kanpinean hainbat hobekuntza lan egin ditu. Alde batetik, ur horniduran arazoak zeuden eta kanpinaren funtzionamenduari eragiten zion horrek. Horri konponbidea emateko ur biltzea egiteko putzu bat zulatu da. Pupa baten bidez 270 metroko sakoneratik hartzen da ura eta poliester-erretxina-ekin aurrez fabrikatutako ur-biltegi batean gordetzen da. 65.000 litroko edukiera du, eta bi ganberatan zatituta dago, bakoitza 32.500 litrokoa. Haren aldamean, etxola batean, beharrezko tresneria guztia jarri da.

Aurten arte kanpinak Urbasa Jauregitik gertu dagoen putzu batetik hartzen zuen ura. 9 kilometro hoditeria sarea zen. Konponketa garestia eskatzen zuen eta ez zion kanpinaren ur-horniduraren arazoari irtenbidea bilatzen. Jocal SL enpresak putzua zulatu zuen eta Lakita SL enpresak, berriz, ur-biltegia jarri. Elizalde eta Aierdi kontseilariek lanak ikuskatu zituzten.

Azpiegituraz

Bioitza kanpina 1990eko hamarkadaren hasieran mustu zen,



Nafarroako Gobernuak ordezkariak kanpinean bisitan. UTZITAKOIA

eta Urbasara kontrolik gabe iristen zen turismo "berdea" ordenatu eta kontrolatzeko birtarteko bat izan zen. Izan ere, mendia natura-parke izendatu zen 1997an. Kanpinak 556 lagun eman diezaieke ostatu. Horretarako, zenbait ostatu-modalitate ditu: kanpaldi-eremua, aterpetxea, gela anizkoitzak edo bungalowak. 11.000 ostatu-gau egiten dira, gutxi gorabehera. Kopuru hori sendotu egin da azken urteetan.

Taberna-jatetxea du, eta aukera ematen du naturan jardue-

rak egiteko. Bisitariei zein bilagunei eta parkean lan egiten duten langileei ematen die zerbitzua. Balio turistiko ukazina du, baina baita ingurumen-balioa ere, kanpaldi libreak eragiten zituen inpaktuak kontzentratzen baititu. Nafarroako Gobernutik adierazi dutenez, kanpinak inguruko ibarren ekonomia garpenean laguntzen du. Sei langile finko ditu, eta beste sei langile hartzen ditu goi-denboraldian. Turismo jarduera sortzen du, eta merkataritza aktibatzen du tokiko hornitzaileetan.



Alkatea eta Adamo enpresako ordezkaria. IRURTZUNGO UDALA

Zuntz optiko sare berria jarrita zerbitzu egokia bermatzeko

Herrian barnako sarea zabaldu da eta industrialdera eramatea aztertzen ari dira

IRURTZUN

Internetarako sarbide egoki baten abantailak dira esaterako: sarean itxaron gabe eta etenik gabe ibiltzea, online edukiak unean bertan eta definizio handian ikustea, tamaina handiko artxiboak azkar bidaltzea eta jaitea edo sarean eroso lan egitea. Horiek guztiak zuntz optikoarekin bermatuta gelditu dira Irurtzunen. Izan ere, Onena enpresa nafarrak eta Adamo telekomunikazio enpresa suediarrek, Irurtzongo Udalaren laguntzaz, herrian barna zuntz optikoko sarea jarri dute eta orain hura industrialdera zabaltea aztertzen ari dira. Irurtzongo alkate Aitor Larraza Carrerak begi onez ikusi du azpiegitura berria ekarri duen eragile pribatuen (Onena eta Adamo) eta publikoen (udala eta Nasertic) arteko akordioa, herrian telekomunikazio azpie-

gitura garrantzitsua bermatzen duelako.

Adamo landa guneeetan zuntz optikoa zabaltzen eta kalitate handiko Internet zerbitzuak eskaintzen enpresa aditua da. 1.000 Mb-eko arteko abiadura eskainiko die enpresak irurtzundarrei. Hain zuzen ere, eskaintza horren berri zuzenean emateko aurkezpena egin zuen telekomunikazio enpresa suediarrek kultur etxean herenegun. Eta ordutik zerbitzua kontratatzeke inskripzioak Kate Informatican egin daitezke (lehengo Martxueta liburu-dendan).

Bestalde, Irurtzongo Udalak jakinarazi du 0 eta 3 urte arteko seme-alabak haur eskoletara eramatea gatik gurasoek dirulaguntza emateko aukera dutela. Aurkeztu beharrezko dokumentazio guztia irailaren 30era arte aurkeztu dezakete Irurtzongo udaletxean.

Arbizuko Udalak ikurriñaren kontrako eraso salatu du

Sortuk joan den astean jakinarazi zuenez, kiroldegiaren parean dauden mastetako ikurriña guardia civil batek tiraka hautsi zuen irailaren 3an goizaldeko 03:30ak aldera. Ikurriñaren alde eta Espainiako banderaren inposizioa salatu zuen Sortuk.

Arbizuko udal taldeak gertaren berri izan eta "gogor" salatu du "ordu txikitari eta gauaren

babesean, herriko sarreran dagoen ikurriñaren aurka egindako eraso. Jakin dugu gainera, eraso uniformez jantzitako guardia civilek egin dutela".

Arbizuko Udaletik adierazi dutenez, "herritarrok eskubide osoa daukagu gure sinboloak eta ikurrak nahi ditugun bezala erabiltzeko, eta ez dago Ikurren Legerik gure nahiak, sentimenduak eta aldarrikapenak isilaraziko dituenik". Okupazio-indarrak alde egiteko eskatuz despeditu du oharra udalak.

Gaztetxokorako aisialdi begirale lan-poltsa osatuko da

Arbizuko Udalak ikasturte honetan ere gaztetxokoa martxan jarriko du. Baina aurretik, 11 eta 14 urte arteko gaztetxoekin lan egin nahi luketen aisialdiko begiraleen zerrenda osatu nahi du. Poltsan sartu ahal izateko honako baldintzak bete behar dira: 18 urte beteak izatea, Baxilergoa edo LHko erdi-mailako moduluren bat eta C1 euskara

maila edukitzea. Aldi berean, udalak baloratuko du: arbizuarrak izatea, begirale titulua edukitzea eta hezkuntza arloko ikasketak izatea. Izena ematen dutenek txosten bat aurkeztu beharko dute, ahoz, Gaztetxokoa nola antolatuko eta kudeatuko luketen azaltzeko (irailaren 24an). Izen ematea hilaren 21era arte egin daitezke udaletxean (948 460 017 edo info@arbizu.eus). Bestalde, gaztetxokoan izena emateko epea hilaren 24ra arte zabalik dago.

Lakuntzako Udalaren liburuzaina kontratatzeke deia

Lakuntzako Udalak udal liburutegi arduratuko den pertsona bat kontratatu nahi du. Interesa dutenek Nafar Lansareren Altsasuko enplegu bulegoan eman behar dute izena. Horretarako, irailaren 24ra arteko epea izanen dute. Udal liburutegia udaletxeko beheko solairuan dago eta ikasturtean zehar zabalten ditu ateak, arratsaldean.



UTZITAKOA

Festak festarako

Eta horrela izan zen asteburuan Etxeberrin. Herriko festak hiru egunez izan ziren eta giro ederrean pasa zituzten bertakoek eta herrira hurbildu zirenek ere. Falta ezin ziren jan-edanak, batzuk mahaira eserita, besteak zutik, etxez etxeko errondan aritu ziren moduan. Horrela Etxeberriri buelta eman ziotenak ageri dira argazkian.



Orga-eramaileak Laasen

Laasko Printzerrian esku-orgen lehiaketa jokatu zen agorrilaren 25ean. Bigarren urtez Iruztungo ordezkari presenten izan zen, laasdarren festetako bisita bueltatuz. Pikuxarreko, Orritzeko eta Iskidiko kideak izan ziren Laasko esku-orga txapelketan parte hartu zutenak. Sanfermin jantziz lehiatu ziren. Mitologia-pertsonaietako batzuk ere aritu ziren.



Santa Luzia arte

Bost eguneko ospakizunei astelehenean esan zieten agur ziordiarrek. Larunbatean patroia duten Ama Birjinaren eguna ospatu zuten. Igandean herri kirolak eta dantzariak izan ziren eta astelehenean haurrentako eskaintza zabala izan zen. Asteburuan makina bat jende joan zen Ziordia, festaz gozatzera.



Extremadurako egun ederra

La Encina Extremadurako kultur elkarteak antolatuta, Extremadurako eguna eta Guadalupeko amaren eguna ospatu ziren Altsasun igandean. Iruñeko Extremadurako etxeko Raices y Brotes taldeak bere kantuekin edertu zuen San Juan ermitan izan zen meza. Ondoren dantza erakustaldia egin zuten kanpoko aldean. Bazkaltzera ehun bat elkartu ziren.

Dendetako erakusleihoek ere festa giroa jaso dute

Altsasuko peñek, Altsasuko Dendarien Elkartarekin batera, 3. Festetako Erakusleho Txapelketa antolatu dute. Irailaren 3tik astelehenera arte herrian barnako hainbat dendetako erakuslehoek festa irudikatu dute. Kartel, banderatxo, garai bateko irudi, etxaju, peñetako atorra eta bestelakoekin daude apainduta erakusleho horiek.



ADE



ADE





Luis Mari Lopez de Goikoetxea txupinazoa botatzeko momentuan.

Kultura transmisioaren etxajua Altsasun

Luis Mari Lopez de Goikoetxea piztu zuen bost festa egunei hasiera ematen dien etxajua. Altsasuko auziagatik kartzelan dauden zazpi presoak gogoan izan zituen eta Altsasu hirutan goratu zuen, herritarren erantzuna piztuz

ALTSASU

Altsasuarrek estimatzen duten gizona da Luis Mari Lopez de Goikoetxea. Berak izan du festei hasiera emateko ardura. Eta Altsasuko auziagatik preso dauden eta festetan egon ezin duten gazteak izan zituen gogoan. Herritarrek txaloz hartu zituzten hitz horiek. Altsasuarrei festa onak eta disfrutatatu dezatela

opatu zien. Hirutan “gora Altsasu” errepikatu zuen eta “gora” erantzun zioten herritarrek.

Ondoren, Lopez de Goikoetxea jakinarazi zuen esan beharrekoa Koldo Aranzekin batera lotu zuela, “ongi enfokatzeko”. Aitoritu zuen eskarmentu handia duela lurretik etxajua botatzen, baina udaletxetik botatzea “berrezia” dela esan zuen, “jende hori

guztia behean ikusteak errespetua ematen du”. Esperientziarekin “pozik” dagoela esan zuen.

Merezimendua

Santa Agedan kintoek zortzikoa, jota eta porrusalda dantzatzeko kioskorekin inguruan. Gehien-gehienek ez dakite eta, horregatik, ilbeltzaren 6aren ondorengo zozketa egunetik

otsailaren 3ra arte entseguak egiten dituzte. Lopez de Goikoetxea, ordea, haurra zela Domingo Lumbier eskolako arkupeetan entseguak ikusiz ikasi zuen Altsasuko zortzikoa dantzatzeko. Beraz, 1967an kinto izan zenerako ederki zekien dantzan.

1968an Demetrio Urizarri lekukoa hartu zion eta kintoen dantza irakasle hasi zen. Lau hamarkada eman zituen egiteko hartan. Eta urtero-urtero kintoek, esker onez, otsailaren 5ean bazkaltzera gonbidatzen zuten. Eskuzabal, herriko ohituren alde dohainik egindako lana izan zen berea. Eta joan den astean aitoritu zuenez, “berdin zion dantzariaren jatorria eta kondizioa”, irakaslearendako denak berdinak ziren. 40 urtetan inorekin arazorik ez zuela izan eta horrekin pozik dago.

Gainera

Lopez de Goikoetxea bere dantza zaletasuna Gure Etxea elkartearen inguruan sortutako dantza taldean landu zuen. 60ko hamarkadan izan zen hori. Larunbatero Alegiko Tomas Iraola irakaslea etortzen zen haiei dantzan irakastera. Harekin Gipuzkoako dantzak eta Bizkaiakoren bat ikasi zituzten. Omen-duk gutxi bezala jasotzen zuen hanka, Frankismo betean euskal kultura berreskuratzeko lana guztiak begi onez ikusten ez zuten garaian. Elkarrekin, berez mendi taldea zen eta horretan ere nabarmendu zen. Gazteen artean mendizaletasuna sustatzeko irteerak egiten zituen.

Ilbeltzaren 5ean ekialdeko erregeak Altsasuko haurrez ez ahazteko, txikiak kalera farekin ateratzen ziren eta herriko kale eta basoan barna hotsa egiten zuten. 50eko hamarkadan galdu

zen ohitura. Baina 1976an Enrique Zelaiaren eta Luis Mari Lopez de Goikoetxearen ekimenez berreskuratu zen eta gaur egunera arte mantendu da. Haurren artean opilak banatu eta saria duena errege izendatzeaz eta gero, haur guztiekin herrian barna hotsa dariola ibiltzeaz arduratu zen urteetan Luis Mari Lopez de Goikoetxea, Maria Ruizen laguntzarekin.

Neguko festa zikloko ezinbesteko zatia dira inauteriak eta Altsasukoen berreskurapenean ere parte hartu zuen Lopez de Goikoetxea. Maiatzeko gurtzeko artisau azokaren sustaizaleen artean izan zen ere.

Lopez de Goikoetxea gogorazi duenez, garai bateko Altsasuko festetan zezenuzkoarekin neurririk gabe ibiltzen ziren. Esaterako, plazako Toki Jai tabernako ate batetik sartu eta beste ateratzen ziren. Hala, koak saihesteko berak hartu zuen ardura, eta hainbat laguntzaileekin batera zezenuzkoari beste aire bat eman zioten. Egunero toki desberdinetatik ateratzen zen eta altsasuarrek ezustean hartzen zituzten. Esaterako, ibai gaineko zubitik su festak bota ziren azken urtean, haien ondoren jendea Gartzia Ximenez kalean gora herrira bueltatzen zela benetako entzierroa egin zuten, zezenuzkoa Zubeltzutik jaitsi eta atzean agertu zitzaielako. Gurutze Gorria herrian ezarri zuen ere.

**KINTOEN DANTZA
IRAKASLE, HAINBAT
OHITURA
BERRESKURATZEN
LAGUNDU DU**



Amaya
Okindegi-gozotegia

Lantegia: Teileria Aldapa S/N
Altsasu
948 562 205

BM-supermerkatua

ONGI PASA FESTETAN!

Araia (Araba)
945 314 572

Olazti
948 468 755

Etxarri-Aranatz
948 461 660

San Juan kalea, 50
Altsasu
670 389 017

Otadiako Kristo
Deuna Plaza, 19
Altsasu
948 562 185

Zumalakarregi Plaza
Altsasu
T. 948 468 026

ALTSASUKO FESTAK



OSTIRALA 14

09:00 Dianak Altsasuko Gaiteroekin.

10:30 Udaltzaren irteera

Altsasuko Txistulariez lagunduta.

11:30 Hamaiketako Foru plazan, Zubeztia gastronomia-elkarteak eskainia.

11:30 Rezilclonk, birziklatutako materialekin egindako soinu instalazio eta tailerra Turukutupa konpainiaren eskutik, lortia zabalkunde.

12:00 Azken ezquila-jotzea eta

Altsasuko zortzikoa, Foru plazan.

13:30 Eguerdiko kontzertua London orkestrarekin, Foru plazan.

16:00 Peñen kafea eta elkartepoteoa, Foru plazatik. Merienda ibilbidean zehar.

17:00 Play Back lehiaketa eta txokolate-jana, lortia zabalgunean, txokolate jana Zubiondo elkartek antolatua.

19:00 Kalejira gaiteroekin, Altsasuko Gaiteroek antolatua.

19:30 Japoniar bonben jaurtiketa eta buruhandiak, Foru plazan.

19:30-21:30 Dantzaldia London orkestrarekin, Foru plazan.

20:00 Peñen jaitsiera Zumalakarregi plazatik abiatuta. 21:30ean iristea Foru plazara.

21:40 Altsasuko Zortzikoa Altsasuko Txistulariekin eta Larrain Dantza Etxarriko gaita-jotzaileekin, Foru plazan.

22:00 Zezensuzkoa, Foru plazan.

22:00 Pilota partida profesionalak Aspeko pilotariekin, Burunda frontoian.

22:15-00:15 Gazte Gauak Intxostiapuntan: jolastu dantzatu, afaldu (sukaldea irekita egonen da eta freskagarriak udalaren kontura izanen dira).

00:00-03:00 Dantzaldia London orkestrarekin, Foru plazan.

00:00-02:00 Peñen igoera, Foru plazan hasi eta Zumalakarregi plazara.

LARUNBATA 15

09:00 Dianak Haize Berriak bandarekin.

10:00-13:00 LXXXVIII Altsasu Txirindularitza Lasterketa.

Altsasuko Kirol Elkartek Altsasuko Udalaren laguntzarekin antolatua. Irteera, helmuga eta sari banaketa (13:00etan) Altsasuko Kirol Elkartearen egoitzan.

11:30 Hamaiketako Foru plazan,

La Encina kultur-elkarteak eskainia.

12:00 Altsasuko erraldoi eta buruhandiekin kalejira. Irteera lortia zabalgunetik.

13:30 Kantuz kantu Altsasukoak aske, Zubiondoko kantu taldeak eta Altsasukoak Askek antolatua, Foru plazan.

15:00 Herri bazkaria, kiroldegian.

16:00 Peñen kafea eta kalejira, Foru plazan. Merienda ibilbidean zehar.

19:30 Japoniar bonben jaurtiketa eta buruhandiak, Foru plazan.

19:30 Dantzaldia Tsunami talderekin, Foru plazan.

20:00 Peñen jaitsiera Zumalakarregi plazatik abiatuta. 21:30ean iristea Foru plazara.

21:40 Altsasuko Zortzikoa Burundar Txistulariekin eta Larrain Dantza Etxarriko gaita-jotzaileekin, Foru plazan.

22:00 Zezensuzkoa Foruen Plazan.

22:00 XLIX. Otadiako Santokristo pilota txapelketaren finala Burunda frontoian, Altsasuko Kirol Elkartek Udalaren laguntzarekin antolatuta.

22:15-00:15 Gazte Gauak Intxostiapuntan: jolastu dantzatu, afaldu (sukaldea irekita egonen da eta freskagarriak udalaren kontura izanen dira).

23:30 Kontzertua: Vendetta eta DJ Elepunto Foru Plazan.

DOMEKA 16

09:00 Dianak Altsasuko Gaiteroekin, ondotik, Haizagako gaita-jotzaileak.

10:30 Eskolarteko txirindularitza proba, ginkana eta sari banaketa lortia plaza txikian eta inguruetan, Burunda Txirindularitza Elkartek Udalaren laguntzarekin antolatua.

11:30 Hamaiketako Amandrea gastronomia-elkarteak eskainia, Foru plazan.

11:30-14:30 Txiki parka eta Txu-Txu tren, Zumalakarregi plazan.

13:00 Munduko arrozak, karpan. Gizarte Zerbitzuak eta Immigrazio zerbitzuak antolatua.

13:30 Eguerdiko kontzertua Fusioak, Aukeran dantza konpainiaren koreografia hoberekin biltzen dituen ikuskizuna, Foru plazan. Aurten bere XX. urtemugan ospatzen du.

14:30 Makarroi-jatea, Foru plazan, Peñek antolatuta.

16:00 Peñen kafea eta kalejira, Foru plazan. Merienda ibilbidean zehar.

16:00-19:00 Txiki parka eta

Ongi pasa festetan!



ORLEGHY
-RENOVABLES-

Biomasa galdarak (pellet, egurra, ezpalak...)

Geotermia eta aerotermia

Instalazio eta mantentze zerbitzua

Pellet salmenta on-line

Tlf y Fax: 948 562 604 | Gipuzkoa kalea, 17 · Altsasu
www.orleghy.com · info@orleghy.com



Txu-txu tren, Zumalakarregi plazan.

18:30 Kalejira Orritz pertsonaia mitologikoein: Mari, Tartalo, Basajaun... Foru plazan egonen dira. **19:30** Japoniar bonben jaurtiketa eta buruhandiak, Foru plazan.

19:30 *Los del Rayo sinfonikoa* kontzertua.

20:00 Peñen jaitsiera Zumalakarregi plazatik abiatuta. **21:30**ean iristea Foru plazara.

21:40 Altsasuko Zortzikoa Burundar Txistulariekin eta Larrain Dantza Etxarriko gaita-jotzaileekin, Foru plazan.

22:00 Zezensuzkoa, Foru plazan.

22:15-00:15 Gazte Gauak Intxos-tiapuntan: jolastu, dantzatu, afaldu.

23:30-03:00 Disko festa Oihan Vegarekin Foru plazan.

ASTELEHENA 17

09:00 Dianak Altsasuko Gaiteroekin.

11:30 Hamaiketako Beti Jaten gastronomi-elkarteak eskainia, Foru plazan.

11:30 Tripula, Farrés Brother

Konpainiaren familiarterko ikuskizuna lortian.

12:00 Omenaldia herriko nagusiei. Abardia jarriko zaie etxean, Udal musika eskolak girotua.

13:30 Eguerdiko kontzertua, jotak, Voces del Ebro taldearekin, Foru plazan.

14:30 Nagusien omenezko bazkaria, lortia Kultur Gunean. Ondoren dantzaldia 20:00ak arte.

16:00 Peñen kafea eta kalejira, Foru plazan. Meriendak ibilbidean zehar.

18:00 Tripula, Farrés Brother konpainiaren familiarterko ikuskizuna lortian.

19:30- 21:30 Puro Relajo, mexikar musika eta askoz gehiago... Foru plazan.

19:30 Japoniar bonben jaurtiketa eta buruhandiak, Foru plazan.

20:00 Peñen jaitsiera Zumalakarregi plazatik abiatuta. **21:30**ean iristea Foru plazara.

21:40 Altsasuko Zortzikoa Burundar Txistulariekin eta Larrain Dantza Etxarriko gaita-jotzaileekin, Foru plazan.

22:00 Zezensuzkoa, Foru plazan.

Ondoren, Festen agurra eta azken

petardo-sorta udaletxean. Ondoren Peñen kalejira.

HERRI MUGIMENDUAREN EGITARAUA

'Jaiak heritik eta herriarendako' leloa euren eginez, Altsasuko Bilgune Feminista, Askapena, Ospa mugimendua, peñak, euskal preso eta iheslarien aldeko taldea, Gazte Asanblada, Ernai, Euskal Herrian Euskaraz, Ikasle Abertzaleak eta Altsun eskuaz taldea elkartu egin dira eta festetarako egitaraua osatu dute.

OSTIRALA 14

12:00 Kalderete txapelketia.

14:30 Kalderete bazkaia.

16:30 Peñain kafiek.

17:00 Elkarre-poteua.

19:00 Manifestaziya: Euskal preso eta iheslariak etxera!

20:15 Bajadika.

22:00 Askapena afaia.

00:00 Subidika.

01:30 Tirri & Terry dj-ak.

04:00 Magrak, gaztetxien.

LARUNBATA 15

15:00 Herri-bazkaia.

16:30 Peñain kafiek.

18:00 Kalejira ta jolasak txaranga-kin.

20:15 Bajadika.

22:00 Karpan kontzertuak: Embajada eta Los demenciales chicos acelerados (Eskorbutoaren tributu banda).

DOMEKA 16

12:00 Munduko arrozak.

15:00 Makarronada.

16:30 Peñain kafiek.

18:00 Zurrakapoteua.

18:00 Gaztetxien: Alkarajo.

20:15 Bajadika.

22:00 Kantaitan afaia.

04:00 Magrak gaztetxien.

ASTELEHENA 17

14:30 Bazkai autogestionatua.

16:30 Peñain kafiek.

17:30 Burrunba elektrotxaranga.

19:30 Txoznan kontzertua: Tocan 2 La Polla.

20:15 Bajadika.

21:30 Musika-afai-poteua.

KALEZ KALE PEÑA

Hirugarren urtez kolore urdin iluneko peñako kideek egitarau propioa prestatu dute festetarako. Hartan kolore festa, kalejirak, bazkariak, mozzorro lehiaketa, barbakoa, hamaiketakoak eta mojito badago modukoak opa daitezke. Festa giroa denen artean sortzen dela nabarmendu dute peñako kideek, horregatik jendea kalera ateratzera animatu dute. Peña gazteenaren berri kalezkale. wordpress.com blogean segi daiteke.

ALTSASUKOAK ASKE

Altsasuko festetako txupinazioa atzo arratsaldera aurreratu zuten hainbat herritarrek eta Iruñeko kartzelaren kanpoko aldean bota zuten. Hala, gaurtik aurrera herrian nagusi izanen den festa giroaren zati bat eraman nahi izan zioten Altsasuko auziagatik preso dagoen Iñakiri (azterketengatik Adur lekualdatu dute). Etxajuak, txaranga eta beste izan ziren.

Baina festetan ere auzipetuen askatasuna aldarrikatzeko egitaraua prestatu dute. Bi ekitaldi nabarmentzen dira. Alde batetik, Elias Taño muralgile kanariarra Altsasun lanean izanen dela. Valentzian Altsasuko auzipetuen askatasuna aldarrikatzeko murala egin zuen eta garbiketa enpresak borratu egin zuen. Ondoren beste pareta batean egin zuen eta gainetik margotu zuten. Bihar bere lana Altsasun eginen du. Bestetik, etzi kantu-kantari ariko dira auzipetuen askatasuna aldarrikatzeko.

OSTEGUNA 13

21:15 Bajadikaren ondoren, Tximeletarekin batera Aurrera Altsasu abestia kantatzea.

OSTIRALA 14

09:00 Elias Tañorekin mural margotzea, lortia plazan.
12:30 Auzatea Elias Tañorekin.
13:00 Kontzentrazioa, lortia plazan.
13:30 Aurkezpena eta esker ematea.

LARUNBATA 15

12:00 Kantuz kantu Altsasukoak aske herri ekimena, Zumalakarregi plazatik abiatuta.
13:30 Ekitaldia, Foru plazan.

CONSTRUCCIONES ALZATE S.L.

ALZATE ERAIKUNTZAK
Ongi pasa festetan! s.l.

Zubezia 21, Altsasu
Tel. 948 562 745 · Fax 948 467 600
www.construccionosalzate.com

BILTOKI
TABERNA · JATETXEA

ETXERA ALTSASUKOAKASKE

Bokatak barran

948 467 876 · Altsasu

Txalaparta

Taberna

FESTETAN BERRIZ ERE... GUDA DANTZAK GUREAN

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILEA

Patxarana egiteko anisa *Ongi pasa festetan!*

24º takoa
28º takoa
35º takoa
3 litroko botilak

Geltoki auzoa 11 · Altsasu
948 467 317 · 696 979 279 · hijosdegoikoetxea@yahoo.es

Kintadaren lehen argazkia

2017an jaiotako ume guztiak udaletxe parean elkartu ziren atzo goizean, eta festak hasi aurretik kintadari aurreneko talde argazkia egin zioten. 87 umek osatzen dute joan den urtean jaiotakoen kintada. Gurasoen edota aitona-amonen besoetan umeek udal arduradunen eskutik festetako ttattarra jaso zuten. Isilik batzuk, negarrez bestek.



Aniztasunaren isla, arrozaren inguruan ospakizuna antolatuta

Domeka eguerdian Zubeztiako karpatik pasatzera gonbidatu dute, hainbat arroz errezeta ezagutzera

ALTSASU

Munduko Arrozak ekimenaren laugarren edizioa izanen da festetako domekan. Maroko, Ekueador, Bangladesh, Valentzia, Sahara eta Sakana Harrera Haranako kideak arrozak prestatzen izanen dira Zubeztia plazan jarritako karpan. 11:00etan hasiko dira zazpi sukaldari taldeak euren arroza prestatzeko osagaiak txikitzen eta su ez-tian guritzen. Herrialde bakoitzean arroza nola prestatzen den eta zer osagai erabiltzen dituzten bertatik bertara ezagutzeko au-

kera aparta da domekakoa. Gainera, 14:00etan, prestatutako arrozak dastatzeko emanen dituzte.

Zubeztia plazatik domeka eguerdian pasatzen direnek, hainbat jatorritako altsasuarrez osatutako sukaldari talde lanean ikusteaz aparte, musika eta haurrendako txokoa izanen dituzte. Gainera, Sakana Harrera Harana taldekoek erakusketa jarriko dute. Errefuxiatu kanpamentuetan lanean aritutako sakandarrei argazkiak bidaltzeko eskatu zieten. Jende asko egon da erre-



Antolatzaileak: Higuero, Rubio, Erbiti, Yordanova, Sbai, Zestau eta Chahor.

fuxiatu eta migratzaile eremuetan laguntzen eta argazki sorta ederra lortu dute. Haren lagin bat karpan ikusgai jarriko dute. 40 bat irudiren bidez Europar bertan dagoen errealitate horren berri emanen dute.

Horietaz aparte, Zaska Zurrurruen Aurkako Nafarroako Sareko kideak izanen dira ere. Bestalde, Sakanako Mankomunitateko kultur bitartekaria Youssef Chahor han izanen da zubigilearena egiten.



602 457 947 salaketa telefonoa

Altsasuko festetan sexu erasoak salatuzko telefono zenbakia da hori. Altsasuko mugimendu feministak kudeatuko du. Telefonoaren eta Gure Etxea eraikineko beheko solairuan egunero 20:00etatik aurrera zabalik egonen den gunearen egitekoa bera da: emakumezkoek pairatzen dituzten sexu eraso berri jaso eta emakumezkoek babesa, laguntza eta orientazioa ematea.

MAPFRE Altsasu

948 563 354 · jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 · ALTSASU

festa zoriontsuak opa dizkizuegu

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

PORTUKO @kidegija

Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urduain: 948 563 763

Ongi pasa festetan!

Dendetako erakusleioek ere festa giroa jaso dute

Altsasuko peñak, Altsasuko Dendarien Elkartearekin batera, 3. Festetako Erakusleio Txapelketa antolatu du. Irailaren 3tik astelehenera arte herriarnak hainbat dendetako erakusleio festa irudikatu dute. Kartelak, banderaxoak, garai bateko irudiak, etxajuak, peñetako atorrak eta bestelakoekin daude osatuta erakusleio horiek.

HERRI KIROLAK Perurena, aizkolariak eta beste etzi Irurtzunen

Igandean ospatuko da Irurtzungo VI. Bertako Ganadu Azoka eta egun osoko egitarau polita prestatu du antolakuntzak. Tarteetan, arratsaldean, 18:00etatik aurrera, Herri Kirol Jardunaldia hartuko du Irurtzungo plazak. Batetik, Inaxio Perurena harri-jasotzaile handia lanean ikusteko aukera izango dugu. Harekin batera etorkizuneko harri-jasotzaileak igoko dira oholtzara, Irurtzungo Sakanako harri-jasotzaileen eskolako kideek erakustaldia egingo baitute. Harriekin batera, aizkorak ere mugimenduan jarriko dira, Razkin, Lizaso, Pagola eta Jauregi aizkolarien erakustaldia hartuko baitu Irurtzungo plazak.



Altsasuko partida. BASKET NAVARRA

SASKIBALOA Basket Navarra Altsasun aritu zen

Zilarrezko mailan dabilen Basket Navarra taldeak aurredeboraldiko bigarren partida jokatu zuen asteazkenean Altsasuko Zelandi kiroldegian, bere maila berean dagoen HA Zornotza taldearen kontra. Partida bizia izan zen, gorabeheratsua, eta azkenean bizkaitarrek lortu zuten garaipena, Iruñeko taldeari 59 eta 88 irabazi eta gero.

Basket Navarra taldearekin ariko da aurten Pello Iraola Rodriguez altsasuarrak. Altsasuko CBASK taldean trebatu da Iraola, orain arte bertan aritu da eta aurten debutatuko du Basket Navarra taldearen filialean. Iraolak 18 urte ditu, 1,92 metroko garaiera eta eskolta postuan jokatzeko du.



Zabaleta eta Ezkurdia eta Altuna eta Martija, Binakakoan. Gaur ere elkarren kontra ariko dira. UTZITAKOIA

Altsasu: Martija, Ezkurdia Zabaleta eta Lasa lanean

PILOTA Aspek pilota jaialdi bikaina antolatu du gaur, ostiralean, 22:00etan, Altsasuko Burunda pilotalekuan. Aspek pilotari sakandar guztiek jokatu dute. Binakakoa errepikatuko da: Altuna III.a eta Martija Ezkuriaren eta Zabaletaren kontra ariko dira

Altsasuko festetako egun handian, gaur, ostiralean, pilota jaialdi bikaina antolatu du Aspek. Gaueko 22:00etan abiatuko da jaialdia, Burunda pilotalekuan, eta Aspen dauden pilotari sakandar guztiek hartuko dute parte. Horrela, gure pilotarien lana gertutik jarraitzeko aukera izango dugu.

Jaialdia zabalitzen duen partidaren Adur Lasa lanean ikusteko aukera izango dugu. Etxarriarrak Retegi Birekin osatuko du bikotea eta P. Etxeberria eta Martinez izango dituzte aurkari. Ondoren iritsiko da partida nagusia, puntako protagonistenkin. Aurreko igandean Errioxako Villamedianan ikusgarri aritu zen Julen Martija ariko da atzeko koadroetan; Etxeberrikoa Altuna III.aren arituko da, eta Joseba Ezkurdia arbi-zuarra eta Jose Javier Zabaleta etxarrendarra izanen dituzte arerio. Martija eta Zabaleta oso lagun onak dira, primeran eza-gutzen dute elkar eta, egun,

atzelari onenen artean daude. Beraz, euren arteko lehiak katedraren interesa piztu du. Eta zer esanik ez Ezkuriaren eta Altunaren arteko lehiak. Beraz, jaialdi bikaina dugu aurretik. Sarrerak Burundako txarteldegian erosi ahal izango dira gaur. Bestela, Asperen 661 259 009 telefonora hots egin daiteke.

Logroñoeko San Mateoak

Igandean hasiko da udako ferietako azken torneo garrantzitsua, Logroñoeko San Mateo Torneoa. Aurten torneo mistoa antolatu dute Aspek eta Asegarcek, eta bi enpresetako jokalariek nahastuta osatuko dira Binakako Torneoan ariko diren 6 bikoak: Olaizola II.a-Zabaleta, Ezkurdia-

BINAKAKOA ERREPIKATUKO DA GAUR ALTSASUN: ALTUNA-MARTIJA VS EZKURDIA-ZABAleta

Imaz, Altuna III.a-Aretxabaleta, Artola-Martija, Victor-Rezusta eta Elezkano II.a-Albisu. Bi multzotan banatuta ligaxka jokatu eta gero, multzo bakoitzeko onenek final handia jokatu dute irailaren 23an.

Altsasun bezperan elkarrekin jokatu ondoren, igandean Ezkurdia eta Zabaleta elkarren kontra ariko dira Logroñon, Imaz eta Olaizola II.a bidaide dituztela. Martija, aldiz, astelehenean sartuko da lehian, Artolarekin batera, Altuna III.aren eta Aretxabaletaren kontra arituko da.

Bakaikoa, ardoaren desafioan

Irailaren 22an, larunbatearekin, Bodegas Domus Dei desafioa jokatu da. Lau t'erdian, Agirre eta P. Etxeberria lehiatuko dira; binaka, Irribarria eta oraindik zehaztu gabeko atzelari batek Urrutikoetxea eta Mariezkurrena izanen dituzte aurkari. Eta buruz buru, Dario eta Joanes Bakaikoa etxarriarra ariko dira.



Aurreko urteko finalak. SDA

Altsasuko Otadiko Kristo Deuna Tomeoko finalak, bihar

PILOTA Emakumeen, juniorren eta afizionatuen finalak larunbatean jokatuko dira, 22:00etan

49. Otadiko Kristo Deuna Pilota Txapelketako pilotari onenak zein diren erabakiko da bihar Altsasun. Txapelketa antolatzeneko Sociedad Deportiva Altsasuak aurten Pilotajauku kluba izan du bidaide, elkarlanean aritu baitira. Jubenilak, 23 urtez azpikoak eta, lehenengoz, emakumezkoak lehiatu dira aurten. Aurreko larunbatean 3. jardunaldia jokatu zen: emakumezkoetan, Mendizabalek eta Agirrek 18 eta 15 irabazi zieten Alonsori eta Igoari; Osak eta Elizegik 20 tantotan utzi zituzten Olaetxea eta Lazkoz eta Nazabal eta Arbizuri 21 eta 22 irabazi zieten Canabalek eta Garmendiak.

Altsasuko finalak

Otadiko Kristo Deuna

- **Emakumeak** Leire Garai-Arrate Bergara / Nora Mendizabal-Narora Agirre
- **Jubenilak** Osa-Elizegi / Olaetxea-Lazkoz
- **23 azpikoak** Canabal-Garmendia / Azketa-Elizegi



Osasuna Magnak Civican aretoan egin zuen 2018/2019 denboraldiko aurkezpen ofiziala. XOTA

Nafarroako Kopa, Osasuna Magnarendako

ARETO FUTBOLA Altsasun jokaturako finalean, Aspil Vidal Ribera de Navarrari irabazi zioten (4 eta 3). Asteartean 2018/2019 denboraldiko aurkezpena egin zuen Osasuna Magnak eta gaur hasiko dute liga, Peñiscolaren kontra, 20:30ean, Anaitasunan

Aurreko ostiralean Nafarroako Areto Futboleko Kopako finala jokatu zuten Osasuna Magnak eta Aspil Vidal Ribera de Navarrak Zelandi kiroldegian. Final lehiatua, kalitatezkoa, emozio handikoa eta ikusgarria izan zen. Kopa edonork lortu ahal izan zuen, bi taldeak bikain aritu zirelako, baina Osasuna Magnakoek kontrako markagailua irauli -7 minuturen faltan 1 eta 3 galtzen zihozen-, hiruna berdindu, luzapenean 4 eta 3 irabazi eta hirugarren aldiz jarraian Nafarroako Kopa irabazi zuten. Eric Martel, Dani Saldise (2) eta Rafa Usin izan ziren golegileak.

Aurkezpena

Osasuna Magna Xotak 2018/2019 taldearen aurkezpena egin zuen asteartean Civican aretoan, instituzioen eta administrazioeko ordezkariak lagunduta.

Imanol Arregi entrenatzaileak nabarmendu zuen hastear dagoen denboraldia konplikatuagoa izango dela, hainbat talderen

lehiakortasunak gora egin duelako. Helburu nagusiak Espainiako Koparako sailkatzea eta ligan ahalik eta gorenean sailkatzea da, ligako tituluko Playoffak jokatu ahal izateko. "Ilusioarekin gaude, gogoz, beti bezala. Geneukan aurrekontuarekin izan ahal dugun talderik onena dugu. Gustatuko litzaidake jokalariren bat gehiago izatea, baina pozik nago" nabarmendu zuen.

Osasuna Magna Xotak hiru jokalar berri izanen ditu aurten -Chino, Alex Diz eta Juninho- eta baja nabarmena, orain arteko kapitain Javi Eseverrirena. Xotako harrobiko koordinazio lanak egingo ditu orain Otsagiko jokalar berriak. Roberto Mar-

til jokalar irurtzundarra izango da orain kapitain berria. "Naturaltasunez hartu dut, nahiz eta ardura handia izan. Javi faltan botatzen dugu" aitortu zuen Martilek.

Irurtzundarrak

13 jokalarik osatzen dute Osasuna Magna Xotako plantilla. Horietatik 4 nafarrak dira, Roberto Martil defentsa, Dani Saldise hegala eta Asier Llamas atezain irurtzundarrak eta Iñigo Iribarren hegal-pibot suarberra. Haiei ondoko jokalariek gehitu behar zaizkie: Edu atezaina; Araça eta Juninho hegala; Chino eta Martel pibotak; Alex Diz, Alex eta Bynho hegala; eta Rafa Usin hegal-pibota.

Peñiscola, lehen arerioa

Asteburuan hasiko da lehen mailako 2018/2019 denboraldia. Gaur, ostiralean, Osasuna Magnak Peñiscola hartuko du Anaitasuna pabilioian, 20:30ean. Ikuskizuna has dadila!

ROBERTO MARTIL, DANI SALDISE ETA ASIER LLAMAS DIRA TALDEKO IRURTZUNDARRAK

Lagun Arteak eta Altsasuk irabaziz ekin diote ligari

FUTBOLA Asteburuan erregional mailako 2. jardunaldia jokatu da eta Etxarrik preferente mailari ekingo dio

Asteburuan hasi zen Nafarroako Futbol Federazioko Erregional Mailako 2018/2019 denboraldia. Aurreko urtean preferente mailatik erregionalera jaitsi zen Lakuntzako Lagun Artea eta azken denboraldiak erregional leant daramatzen Altsasu dira maila honetan lehiatzen ari diren talde sakandarrak. Eta bikain hasi dute denboraldia, biek garaipean garrantzitsuak lortu baitzituzten.

Lagun Artea eta Altsasu ongi

Lagun Arteak Lekunberrin jokatu zuen Beti Kozkor B taldearen kontra. Partida oso lehiatua eskaini zuten bi taldeek. Beti Kozkor jokoa agintzen saiatu zen, baina Lagun Arteak, ofizio askorekin, euren nahiak zapuztu zituen. 27. minutuan Jonatanek lakuntzarren lehen gola sartu zuen, eta atsedena baino lehen bigarrena sartu zuen Unai. Bigarren zatian ere saiakerak izan ziren baina markagailua ez zen mugitu eta 0 eta 2 irabazita itzuli zen Lagun Artea Lakuntzara.

Bestalde, Antsoainen jokaturako lehiaren garaipen polita lortu zuen Altsasuk Gazte Berriak taldearen kontra. Zelaira gogo handiagorekin atera ziren altsasuarrak eta 15. minutuan zuzeneko falta baten jaurtiketari esker Christianek Altsasu aurreratu zuen. Bost minutura bigarrena sartu zuen Imanolek. Gazte Berriak taldeak ez zuen etsi eta ongi aritu zen, baina

sortutako gol aukerak ez zuten emaitza onik izan. Altsasuk, bere aldetik, ongi defendatzen jakin zuen eta gorritxoak 0 eta 2 irabazita itzuli ziren etxera.

Lagun Artea vs Gazte berriak eta Altsasu vs Iruña B

Lagunak B taldea da erregional mailako lehen multzoko liderra, 3 punturekin. Lagun Artea hirugarrena da eta Altsasu laugarrena, biak puntu berberekin. Igandean Lagun Arteak Gazte Berriak (10.a) taldea hartuko du Zelai Berrin, 17:00etan, eta Altsasu Iruña B (11.a) taldearen kontra ariko da Dantzalekun, larunbatean, 17:30ean.

Preferentean Etxarrik asteburuan ekingo dio ligari: San Jorge hartuko du larunbatean

Preferente mailako 2018/2019 denboraldia asteburuan hasiko da. Etxarri Aranatz izango da gure ordezkari bakarra maila horretan. Etxean hasiko du liga Etxarrik, eta San Jorge taldea hartuko du San Donato zelaian, larunbatean, 17:00etan.

Etxarrirekin batera, San Jorge, Castillo Tiebas, Itarhoa Huarde B, Lagunak, Aibares, Ilunberri, Pamplona B, Beriain, Amigo, Lezkairu, Burlades B, Arrotxapea, Doneztebe, Mutilbera B eta Artajones ariko dira erregional mailako lehen multzoan. Etxarriren helburua ahalik eta lanik onena egingea da, kategoriari eusteko.

ATLETISMOA Ergoienako Bira, atzerakotuan: irailaren 22an Unanun

Aste bat falta da Ergoienako hiru herriak batzen dituen lasterketa jokatzeko. Irailaren 22an, larunbatean, XIV. Ergoienako Bira (8,5 km) abiatuko da, 10:00etatik aurrera. Aurten Unanun izango da lasterketaren abiapuntu eta helmuga. Izena ematea egunean bertan egin behar da, lasterketa hasi baino ordu bat lehenago.



Aurten Unanuk hartuko du proba.



Iker Vicenterekin eta Aitzol Atutxarekin lehia estua espero dute zaleek. JAVI COLMENERO

Aizkolari onenak Lakuntzan ariko dira igandean

AIZKORA Euskal Herriko I. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa igandean dago jokoan, 12:00etan, frontoian

Lakuntza egungo aizkolari onen topagunea izango da igandean. Izan ere, Euskadiko Herri Kirol Federazioak Lakuntzako Udalaren laguntzarekin antolatuta, Euskal Herriko Lehen Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa jokatu da etzi, 12:00etan hasita, Lakuntzako Behar-Zana frontoian.

Atutxa, Vicente eta Azurmendi dira favoritoak

Ikusmina handia da. Aitzol Atutxa, Iker Vicente eta Iñaki Auzmendi, horiek dira, katedraren ustetan, puntaren puntan dauden aizkolariak eta horien artean erabakiko omen da garaipena. Floren Nazabalek erretiroa hartu zuenetik, tamalez, Euskal Herriko lehen mailan ez dugu aizkolari sakandarririk izan. ETBk kanporaketa grabatuko du, baina ez du zuzenean eskainiko. Sarrerak 20 eurotan jarriko dira salgai.

Alberdi Zinkunegi (Gipuzkoa), Ugaitz Mugerza Mendizabal (Gipuzkoa) eta Xabier Zaldúa Alberdi (Gipuzkoa). Bakoitzak 6 pago-enbor erdibitu beharko ditu: bi kanaerdiko (54 ontzakoak), bi 60 ontzako eta bi oinbiko (72 ontzakoak). Lehen sei sailkatuek urriaren 28an 12:00etan Iruñeko Labrit pilotalekuan jokatu den finalerako txartela lortuko dute.

Ikusmina handia da. Aitzol Atutxa, Iker Vicente eta Iñaki Auzmendi, horiek dira, katedraren ustetan, puntaren puntan dauden aizkolariak eta horien artean erabakiko omen da garaipena. Floren Nazabalek erretiroa hartu zuenetik, tamalez, Euskal Herriko lehen mailan ez dugu aizkolari sakandarririk izan. ETBk kanporaketa grabatuko du, baina ez du zuzenean eskainiko. Sarrerak 20 eurotan jarriko dira salgai.

IRRIKAKETA Sakanako II. Irristaketa Trofeoa hartu zuen Altsasuk

Aurreko larunbatean Zumalakarregi plaza irristalarien bilgune izan zen. Sakanako Patin taldeak antolatutako Sakanako II. Irristaketa Trofeoa jokatu zen bertan, eta bertan bildutakoek irristaketa lasterketa azkar eta ederrez gozatzeko aukera izan zuten. Irristalari guztiek oroi-garria jaso zuten eta lehendabiziko hirurek, aldiz, saria.



Irristalarien ikuskizuna ederra izan zen.

Urbasako Igoerako 50. urteurren ospakizunak

AUTOMOBILISMOA Irailaren 14tik 23ra Urbasako Igoerari buruzko argazki erakusketa antolatu du Sakana Motorsportek. Erakusketa mustutzeko ostiralean, 19:00etan, Urbasan aritutako pilotu ezagunek hitzaldia eskainiko dute Olaztiko Kultur Etxean

Aurten 50 urte beteko ditu Urbasako Igoerak. Urriaren 6an jokatu da. Ez da nolana hiko data eta urteurren berezia behar bezala ospatzeko aurten Urbasako motorraren festak inoiz baino zaratatsuagoa izan nahi du, igoerak oraindik bizi-bizi dagoela erakusteko. Horrela, makina bat ekitaldi prestatu ditu Sakana Motorsportek, tartean ostiralean, irailaren 14an Olaztiko Kultur Etxean mustuko den Urbasako Igoera (1968-2018) erakusketa, Olaztiko Udalaren laguntzarekin antolatutakoa.

Urbasako Igoera (1968-2018) erakusketan urte luze hauetan hartutako irudiak ikusi ahaliko dira. Sakana Motorsporteko Javier Goikoetxeak adierazi digunez, 120 argazki inguru izango dira, 50 urte luze hauetan hartutako argazkien selekzio bat. Horretaz gain, bideo bat prestatu dute, igoeretan hartutako irudiez osatutakoa. Erakusketa mustutzeko, Urbasako Igoeran parte hartu izan duten auto bereziak egongo dira aparkatuta Kultur Etxearen aurrean. "Automitikoak izango dira: Porscheren bat, Alpineak, baretak, bertako autoak..." azaldu digu Javier Goikoetxea antolatzaileak.

Urbasan aritutako pilotuen hitzaldia

Eta erakusketa are erakargarria egiteko, erakusketaren mustutzean Urbasako Igoerako urte luze hauetan Urbasako igoeran aritu diren pilotuetako batzuk bilduko ditu Sakana Motorsportek, Javier Goikoetxeak moderatutako hitzaldi batean euren esperientzien berri emateko. Ostiralean 19:00etan izanen da hitzaldia, eta tartean Pantxo Egozkue pilotu beterranoa, makina bat garaipen dituen; Gariquito Flores lakuntzarra, Espainiako Igoeran 2. Kategoriako egungo txapelduna, Esteban



Gariquito Flores pilotu lakuntzarra Urbasan gora, aurreko urtean.

IGOERAN ARITUTAKO PILOTUEN HITZALDIA IZANEN DA GAUR, 19:00ETAN, OLAZTIKO KULTUR ETXEAN

Gartzia Campiejo pilotua, Jesus Urdanoz pilotua eta Carlos Aldecoa pilotua, Urbasako Igoerako lehen edizioa irabazi zuen Carlos Aldecoa pilotuaren semea. "Urbasako igoeraz dituzten oroitzapenak entzutea polita izango da eta egun zertan dabiltzan eta euren erronken berri izateko aukera izango dugu ere. Interegarria izango da, ziur" aipatu du Goikoetxeak. Horrela, sakandarrak ostiralean Olaztira gerturatzea gonbidatu dituzte Sakana Motorsportekoek. "Urbasako Igoeran aritu zen Olaztiko lehen gidaria, Felipe Etxarri, erakusketatik pasatzekoa da ere. 80 urte ditu eta sasoi ona" gaineratu du Goikoetxeak.

Erakusketa irailaren 14tik 23ra bitartean egongo da zabalik, ostiralean 18:00etatik 21:00etara eta larunbatetan eta igandean 12:00etatik 14:00etara.

Igoerarako izena ematea zabalik

Urriaren 6an jokatu da Olaztiko Igoera, Nafarroako Mendi Igoeren Txapelketarako baliagarria. Pilotuek dagoeneko izena ematea zabalik dute Nafarroako Automobilismo Federazioko web orrian (www.fotomotor.es) edo www.fotomotor.es web gunean, irailaren 28ra arte. Urriaren 4an parte-hartzaileen zerrenda argitaratu da. Probaren egunean, urriaren 6an, goizeko 11:00etan hasiko dira entrenamendu libreak, 13:00etan entrenamendu ofizialak, 15:00etan lasterketako lehenengo manga ofiziala eta 17:00etan bigarrena. Ibilgailuen egiaztapen tekniko eta administratiiboak urriaren 5ean eta 6an izanen dira.



Erkuden San Martin Beriainen gora, aurreko urteko lasterketan. ASIER ARLEGI

Uharte Arakilgo Km bertikalean aritzeko azken tokiak

MENDI LASTERKETAK Irailaren 18ra arte eman daiteke izena. Olatzagutia-Urban, aldiz, irailaren 28ra arte

Irailaren 23an jokatu da Uharte Arakil Beriain Km Bertikala. Aurten proba ezagunaren 10. edizioa jokatu da, eta aipatzen da aldi berean Nafarroako Kilometro Bertikalen Txapelketa izanen dela, indibiduala eta klubaren artekoa.

Jakina denez, Uharte Arakildik (471 m) Beriain mendiko gailurrera (1494 m) igotzean datza proba, Autzasoroburu, Auntzaldapa eta Uharteko portutik. 5 km eta 1.023 metroko desnibel positiboko lasterketa motz eta esplosiboa. Izena emateko azken egunak dira hauek, irailaren 18ra arteko epea baitago www.kirolprobak.com web gunean inskripzioa osatzeko. 220 korrikalarirendako tokia du antolakuntzak eta, dagoeneko, 214 daude izena emanda. Txip horia duten federatuek 15 euro ordaindu beharko dituzte, txip gabeko federatuek 17 euro, txip horia duten federatu gabekoek 22 euro eta txip horirik ez duten federatu gabekoek 22 euro.

Igandean Olatzagutia-Urban ibilbidea egiteko hitzordua

Irailaren 29an jokatu da Olatzagutia-Urban mendi lasterketa, Sutegik antolatutakoa. Aurten nobedadeak izango dira ibilbidean. Iaz bi aukera zeuden, 26,33 km-ko lasterketa eta 16 km-koa. Aurten, aldiz, kategoria guztiendako ibilbide bakarria prestatuko du antolakuntzak, 15 km eta 900 metroko desnibel positiboa duena. Bestalde, helduak mendi lasterketan dauden

bitartean txikiendako lasterketak antolatuko dira Olatziko herrigunean. Ibilbide berria ezagutarazteko igandean, goizeko 9:30ean hitzordua jarri dute antolatzaileek San Migel plazan. Nahi duenak korrikan edo nahi duenak oinez egin ahal izango du ibilbidea.

Olatzagutia-Urban mendi lasterketan parte hartzeko izena ematea zabalik dago www.herrikrosa.eus web gunean, irailaren 28ra arte. Izena ematea irailaren 23a baino lehenago egiten bada 15 euro ordaindu beharko dira, eta irailaren 24tik 28ra, ordea, 18 euro.

Katarain bigarrena Axeri Trailen Igandean Axeri Trail-Mikel Garmendia Memoriala jokatu zen Idiazabalen, 25,4 km dituen mendi lasterketa ederra. 201 korrikalarik lortu zuten proba osatzea eta Ander Iñarra izan zen jauna eta jabe (2:09:49). Lezokoak 6 minutu atera zizkion bigarrenari, Beñat Katarain lakuntzarri (2:15:49). Jon Bereziartu altsasuarra 53.a sartu zen (2:50:27). Emakumezkoetan Oihana Azkorbebeitia gailendu zen (2:34:43).

Dravet Trail Solidarioa

Larunbatean Dravet Trail Solidarioa jokatu zen Noainen, 9 km-ko proba Taxoaren barna. Alberto Azparrenek (1:19:05) eta Imna Sainzek (1:38:47) irabazi zuten eta Erkuden San Martin 71.a sailkatu zen (1:57:09), probako 5. emakumea.

Etxeberria eta Erbiti Innsbruckeko Mundialera?

TXIRRINDULARITZA Irailaren 23tik 30era Munduko Txirrindularitza Txapelketa jokatu da Innsbrucken (Austria). Aurrehautatu zen zerrendatan daude Josu Etxeberria junior iturmendierra eta Imanol Erbiti elite arakildarra

Irailaren 23tik 30era Munduko Txirrindularitza Txapelketa jokatu da Innsbrucken (Austria), juniorren, 23 urtez azpikoen eta eliteen mailatan.

Juniorren mailako Espainiako selekzionatzaile Francisco Javier Cerezok Mundialetarako 8 txirrindulari aurrehautatu ditu, eta horietatik bost izango dira, azkenean, Mundialetako linea lasterketan ariko direnak. Aurrehautatutakoen artean Aralar klubeko Intersport Irabia taldeko Josu Etxeberria iturmendierra dago, eta berarekin batera Carlos Rodriguez, Ivan Cobo, Jon Barrenetxea, Alex Martin, Pau Miquel, Pelayo Sanchez eta Miquel Lopez. Linea lasterketa irailaren 27an jokatu da eta erlojupekoa, aldiz, irailaren 25ean. Erlojupekoan Carlos Rodriguez Espainiako txapelduna eta Ivan Cobo, txapeldunordea, arituko direla aurreikusten da.

Eliteen mailako Espainiako selekzionatzaile Javier Mingue-



Imanol Erbiti, Vueltan. MOVISTAR TEAM

zek ere aurrehautatutakoen zerrenda aurkeztu du. Bertan 13 txirrindulari daude, eta horietatik 8 izango dira, azkenean, Mundialetan ariko direnak. Erlojupeko probarako aurrehautatutakoen artean Movistar Team

taldeko Hiriberriko Imanol Erbiti txirrindularia dago, Jonathan Castroviejo, Marc Soler eta Jorge Arcasekin batera. Bestalde, linea etaparako aurrehautatutakoen zerrendan Alejandro Valverde, Jonathan Castroviejo, Jon Izagirre, Enric Mas, Mikel Nieve, Jesus Herrada, David de la Cruz, Mikel Landa, Omar Fraile, Pello Bilbao, Marc Soler, Ruben Fernandez eta Lluís Mas daude.

Erbiti eta Izagirren Vuelta

Denboraldi bikaina egiten ari da Imanol Erbiti. Egun Espainiako Vueltan dabil, bere lider Alejandro Valverderendako eta Nairo Quintanarendako talde lan itzala egiten. Atzoko etapako emaitzen faltan, bezperan Oizen despiditutako etapa eta gero, Simon Yates zen lider, 25. segundora Valverde zuela. Gorka Izagirre (Bahrain) 30.a zen eta Imanol Erbiti 96.a. Igandean bukatuko da Vuelta.

Etxeberria, Lasa, Maiza eta Irastorza Espainiakoan

Asteburuan juniorren eta masterren Espainiako Txirrindularitza Txapelketa jokatu ziren Sorian. Nafarroako juniorren selekzioan sakandarrak aritu ziren. Erlojupekoan Josu Etxeberria 14.a sailkatu zen (27:18) eta Ailetz Lasa 18.a (27:56); emakumezkoetan, Leire Maiza 25.a (35:23) eta Joana Irastorza 28.a (36:57). Lasterketan Ailetz Lasa 12.a sartu zen eta Josu Etxeberria 14.a, biak Jon Barrenetxea txapeldunarengandik 2. segundora. Javier Mitxaus 50.a sailkatu zen, 1:12ra. Leire Maiza 25.a sailkatu zen, Maria Banlles txapeldunarengatik 2:24ra, eta Joana Irastorzak ez zuen puntuatzerik izan.



Nafarroako junior mailako selekzioa, sakandarrak artean. TOÑO DE LA PARRA

Intersport Irabiako Aitor Alberdi lider Arabako Itzulian

TXIRRINDULARITZA Arabako Itzuliko lider izateaz gain, Lukingo Udala Sarian hirugarrena izan zen arbizuarra

Aralar klubeko Intersport Irabia taldeko Aitor Alberdi txirrindulari arbizuarrarendako aste-buru gozoa izan da hau, Arabako Itzuliko liderra izate lortu duelako eta Lukingo lasterketan hirugarrena izan zelako.

Kadeteen Arabako Itzuliko lehen etapa irailaren lehen jokatzen zen Arroiabean, taldekako erlojupekoa (10 km). Aralar klubeko Intersport Irabia gailendu zen, Igor Arrietak, Aitor Alberdik, Martzel Etxeberriak, Mikel Lizasoainek eta Jon Erdoziak egindako lanari esker (14:32). Bigarrena Burunda klubeko Qesos Albeniz taldea sailkatu zen, Hugo Aznarrek, Iker Mintegik, Unai Aznarrek eta Oihan Etxeberriak osatutakoa (14:54). Igor Arrieta lehena sartu zenez, berak lortu zuen Arabako Itzuliko liderraren saria.

Igandean Arabako Itzuliko bigarren etapa jokatu zen Arziniegan, 60 km-koa. Esprintean erabaki zen etapa eta Aranako taldeko Erik Arroiabek gailendu zitzaion Intersport Irabiako Aitor Alberdiri. Iker Mintegi 9.a sailkatu zen, Unai Aznar 10.a, Igor Arrieta 11.a, Hugo Aznar 14.a, Martzel Etxeberria 36.a eta

Mikel Lizasoain 43.a. Tartekako helmuguen saria Aitor Alberdik irabazi zuen eta, horrekin batera Arabako Itzuliko lidergoa eskuratu zuen (1:42:29), Luyandoganzedo taldeko Mikel Beraza 23 segundora duela. Iker Mintegi laugarrena da, 34 segundora, Igor Arrieta 9.a, 1:30era, Martzel Etxeberria 10.a, 1:33ra, Unai Aznar 11.a, 1:50era, Hugo Aznar 12.a, 1:55ra eta Mikel Lizasoain 17.a da, 2:14ra.

Hirugarrena Lukinen

Asteburuan kadeteek eta juniorrek XLV. Lukingo Udala Saria jokatu zuten, 79 km-ko proba. Fundacion Lintxuko Santiago Cadavid gailendu zen esprintean eta Aralarko Intersport Irabiako Aitor Alberdi hirugarrena sartu zen, 5 segundora. Beñat Etxezarreta (I.I.) 5.a sartu zen, Igor Arrieta (I.I.) 8.a, Jon Gil (El Caserio) 9.a, Iker Mintegi (Qesos Albeniz) 14.a, Inhar Astitz (I.I.) 15.a, Iker Cerviño (I.I.) 19.a eta Unai Aznar 20.a. Taldeko Intersport Irabia izan zen onena.

Larunbatean kadeteak eta juniorrak Tafallan ariko dira, XIII. Suministro Urvaca Trofeoan.



J.R. RAMIREZ

Ziordiko haurren lasterketa

ATLETISMOA Ziordiko festetan txikiendako lasterketak antolatu ziren. Proba solidarioa zenez, parte hartzeko Dravet Fundazioak jarritako salmahaiaren zerbait erosi behar zuten haurrek, txikikeriaren bat. Bost kategoriatan lehiatu ziren, eta 15 urtera bitarteko neska-mutikoei gustura parte hartu zuten proba ez lehiakorrean.



Aurreko urteko lasterketa oso mugitua izan zen eta Rural Kutxa izan zen protagonistetako bat.

Afizionatuen 89. Altsasu lasterketa, bihar

TXIRRINDULARITZA Sociedad Deportiva Altsasuak bihar, larunbatean, 10:00etatik aurrera antolatutako proba beteranoak Euskaldun Txapelketa erabakiko du. Igande goizean kategoriatxikiaren lasterketa hartuko du lortia plaza txikiak, 10:30ean

Bihar, larunbatean, goizeko 10:00etan Sociedad Deportiva Altsasuaren egoitzaren paretik abiatuko da 89. Altsasu Txirrindularitza Proba. Espainiar estatuko proba beteranoena da Altsasukoa, Espainiako Vuelta bera baino zaharragoa. Afizionatuen egutegian proba berezia da, besteak beste, Euskaldun Torneo ezaguneko azken proba puntuagarria delako.

Urte luze hauetan gerora txirrindulari handiak izan direnak aritu dira bertan: Indurain, Lejarreta, Valverde... baita txirrindulari sakandarrak ere. Afizionatuen mailako tropeleko txirrindulari onenak bilduko dira biharko proban, Sakanako Rural Kutxa-Seguros RGA taldea, tartean.

Altamira bostetan, Altsasutik igo eta Olaztitik jaitsita

Duela 3 urte SDAk probaren ibilbidea aldatu zuen, lasterketa festetan gehiago txertatzeko. Arrakasta izan zuenez, antzeko

ibilbidea izango du aurten, baina aldaketa batzuk egin dira. 121,6 km izango ditu probak, eta Altamira 5 aldiz gainditu beharko dute txirrindulariek, baina Olaztitik igo eta Altsasutik jaitsi beharrean, Altsasutik igo eta Olaztitik jaitsiko dira. Lasterketa 10 aldiz inguru pasako da Altsasutik, hirutan Urdiaindik San Pedroko bidea hartuko du eta batean Altsasutik San Pedroko bidea, Urdiainera heltzeko. Helmuga ere SDA-ren egoitza izango da, ordu batak inguruan, eta txirrindulariak Alzania kaletik sartuko dira.

Aurreko urtean oso mugitua izan zen Altsasuko proba eta esprint estuan Lizarteko Dzmitry Zhyhunou izan zen txapelketa,

iaz Rural Kutxan zebilen Odei Juango lakuntzarraren aurretik. Bihar ikusiko dugu zer emango duen aurtengoak. Lasterketak Euskaldun Txapelketa erabakiko du eta Lizarteko Marti Marquez da liderra (151 puntu), Ampo taldeko Iker Ballarinen (114 puntu) eta Rural Kutxako Victor Etxeberriaren (95 puntu) aurretik. Hortaz, Marti Marquezek jantziko du txapelketa maila. Baina Euskaldun Torneo taldekako txapelketa oraindik jokoan dute Rural Kutxak (186 puntu) eta Lizartek (181 puntu) eta hori Altsasuko probak erabakiko du.

Kategoria txikiak igande goizean

Kategoria txikiak lasterketa izanen dute Altsasuko festetan. Igandean izanen da, 10:30etik aurrera. Iortia plaza txikian ginkana probak jokatuko dira eta sari ematea izanen da eta inguruetan txirrindularitza lasterketak jokatuko dira.

ALTAMIRA BOSTETAN GAINDITUKO DUTE, ALTSASUTIK IGO ETA OLAZTITIK JAITSITA

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 14

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa. 19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

OLAZTI Urbasako igoeran lehiatu diren parte hartzaileen hitzaldia. Sakana motorsport taldeak antolatuta. 19:00etan, kultur etxean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak. 20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa. 20:00etan, udaletxe parean.

LARUNBATA 15

ALTSASU Altsasu-Lizarragako portua-Lizarra-Lezaungo portua-Altsasu 95 km-ko ibilbidea eginen dute Barranka Txirrindulari Taldeko errepide atalekoek. 08:00etan, San Juan plazatik.

URDIAN Migel Angel Sagasetari omenaldia eta Urrezko Domina ematea Euskal Herriko Txistulari Elkartearen eskutik. 9:30etik aurrera, herrian zehar. Ikus 22 orria.

IGANDEA 16

ALTSASU La Neverara 55 km-ko ibilbidea eginen dute Barranka Txirrindulari Taldeko mendi atalekoek. 09:00etan, taldeko egoitzatik.

UHARTE ARAKIL Lurraren bihotzetik izarretara: Aralarren bisita gidatuak eta astronomia-behaketa. Erreserbak: 650 023 698 edo goazenbidaiak@gmail.com. 17:00etatik aurrera, Lekunberriko udaletxetik.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 17

ALTSASU Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak

Martxan eta Otsailaren 22ko Plataformak deitutako kontzentrazioa. 19:30ean, Zumalakarregi plazan.

ASTEARTEA 18

OLAZTI Elogio del fracaso Alberto Iñurrategiren hitzaldia. 19:00etan, kultur etxean.

LAKUNTZA Dantzari izan nahi? Elai-alai dantza taldearen ikasturte hasierako bilera. 18:00etan, udaletxean.

OSTEGUNA 20



HIRIBERRI ARAKIL El plat o la vida dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia. 19:00etan, erabilera anitzerako eraikina



IRURTZUN Begoña Rastrilla margolariaren erakusketa. Irailaren 30 arte, Pikuxar euskal txokoan.



UHARTE ARAKIL Kristauak erasopean munduan zehar argazki erakusketa. Irailaren 30 arte. 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, Aralarko santutegian.



OLAZTI. Urbasako igoera 1968-2018. Sakana motorsport taldeak antolatuta. Irailaren 14tik 23ra. Ostiraletan 18:00etatik 21:00etara eta larunbatetan eta igandetan 12:00etatik 14:00etara, kultur etxean.

ZORION AGURRAK



Aimar Lazkoz Ruiz
Zorionak guapisimo!! 8 urte dagoeneko. Segi beti bezain zoriontsu! Muxu pila bat familia guztiaren partez!!

ZORIONDU ETXEKO TXIKIA!

ZORION@GUAIXE.EUS
618 882 675

DE KOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen ibitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com · www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU · Tel./Faxo: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



OROIGARRIA

**Jabi Cerviño Anton**

"Txitxarrin"

I. urteurrena



Zaila da zu gabe bizitzea!
Zure alaitasunaren oroitzapenarekin aurrera egingo dugu!

Betidanik eta betirako elkarrekin, maite zaitugu Jabi!!

Irailaren 16an, igandea, goizeko 11:00tan, Lakuntzako San Salvador elizan meza ospatuko da

Cerviño Anton familia

OROIGARRIA

**Maite, Carlos, Dabid eta Xabi**

XXV. urteurrena

Urak dakarrena, urak daroa
Zuek emandakoa, gurekin geratzen da

Zuen kuadrilla

Irurtzunen, 2018ko irailaren 12an

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK**ALOKATU**

Etxe bat alokatzen da, jardinarekin, Sakanan. Harremanetarako 690343978

IKASTAROAK

Etzarri Aranazko udalak honako ikastaro eskaintza egin du: pintura (kultur etxean, asteartean 15:15etik 18:15era), soinketa lasaia (kultur etxean, astearte eta ostegunetan, 17:00etatik 18:00etara), aerobic (astearte eta ostegunetan 18:15etik 19:15era), zumba (astearte eta ostegunetan, 19:15etik 20:15era), yoga (kultur etxean, astearte eta ostegunetan, 09:15etik 10:45era) eta haurrendako zirkulua (eskolako piskomotrizitate gelan, astelehenean 6-9 urtekoak 16:45etik 17:45era eta 10-12 urtekoak 17:45etik-19:45era). Izen ematea irailaren 14tik 26era zabalik. Inprimakiak udaltxearen, bulego ordutegian, edo www.etzarriaranatz.eus web orrian. Eta buru trebetasuna, arintasuna eta

bestelakoak landu nahi dituzten adinduendako tailerra sortzeko aukera dago. Interesa duenak hots egin dezala 948 460 004 edo 606 239 008 telefono zenbakietara edo kultura@etzarriaranatz.eus e-postara idatzi dezala.

Olatzagutiako udalak margoketa eta lantzeria ikastaroak antolatzen ditu. Aurrenarn saioak astelehen, astearte eta ostegunetan 19:30etik 19:30era izanen dira, Kultur etxean. Bigarrena astelehenean (17:30etik 19:30era) eta ostegunetan (18:00etatik 20:00etara) izanen da Kamiogaina jubilatutako elkarrekin. Biak lastailaren 15ean hasiko dira. Izena eman nahi duenak irailaren 24tik lastailaren 5era arteko epea du. Udaletxetik pasa beharko da, astegunetan bulego ordutegian. Bestalde, Erburua kiroldegian eskaintza honakoa da: indoor zirkloa, yoga, pilates, aerdo dance, mantentze gimnasia eta core-grap-hipopresiboak. Informazioa eta izen ematea kiroldegian bertan edo 948 564 512 telefonon. Irailaren 15era arte.

OHARRAK

Adona. Odol-emateak Etzarri Aranatz: Irailaren 19an eta 26an. 17:00 - 20:30. www.adona.es/eu

Sakana Trenaren alde. Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da. Behin behineko biltokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilerak.

Enplegaragarrtasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresarien Elkarrekin langabeei eta lan bila dabilenentzako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

**OPATUTAKOAK/
GALDUTAKOAK****GALDUTAKOAK**

Irailaren 9an Etzarri eta Ataunen artean TXIRRINDULARI EGUZKI BETAURREKOAK galdutuko dituen. Topatuz gero itzultzea eskertuko nuke. 626270446

www.iragarkiaburak.eus

JAIOTZAK

- **Nora El Houndali Rodriguez**, irailaren 1ean Etzarri Aranatz
- **Laia Ramos Bobillo**, irailaren 3an Altsasun

EZKONTZAK

- **David Montes Zubieta eta Leticia Alberca Zozia**, irailaren 10ean Lakuntzan

HERIOTZAK

- **Leopoldo Kintana Etzarri**, irailaren 10ean Olaztin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

Jarri zure iragarki laburra!





948 56 42 75

iragarki@guaixe.eus

www.guaixe.eus/iragarkiak



EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 14**Larunbata, 15****Igandea, 16****Astelehena, 17**

OROIGARRIA

**Alberto Artola Gonzalez**

Soilik ahazten dena dago hilda

Etxeokak



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI-ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

tanatorioak
IRACHE

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

🐦 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es

Txistularien Urrezko domina Sagasetari

Euskal dantzak biltzen eta berreskuratzen egindako lanagatik jasoko du Urdiaingo apaizak omenaldia. Bihar, irailaren 15a, izanen da omenaldia Urdiainen. Ekitaldi nagusia, Urrezko domina ematea, 12:00etan izanen da udaletxean

URDIAIN

Mende erdia baino gehiago pasa da Miguel Angel Sagasetari apezta zela. Iruñean lehenengo meza eman ondoren, Luzaiden apaiz izan zen. Herriko dantzak bereziak zirela konturatu zen, eta bildu behar zituela pentsatu zuen. Gaur egun, Sagasetaren dantzen bilduma "altxor" bihurtu da: "bestela gure herriko plazetan dantzatzaren diren jauzi asko galduak egongo ziren", Euskal Herriko Txistulari Elkarteak azaldu duenez. Hortaz, egindako lanagatik Miguel Angel Sagasetak jasoko du elkartearen aitortzen goren eta ome-



Apezta zela 50. urteurrena ospatu zuten urdiaindarrek. ARTXIBOA

naldia bihar, irailaren 15a, larunbata, Urdiainen.

Luzaideko bolanteak zerbait "magikoa" zirela esan zuen Sagasetak, gordetu beharreko zerbait. Baina ez zen Luzaiden gelditu, eta motorrean inguruko herrietara joan zen hango dantzak ere biltzeko asmoz. Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan zehar ibili zen jauziak eta musikak biltzen. Bilketa horretan jasotakoarekin 1977an Luzaideko dantzak liburua argitaratu zuen, 2011. urtean osatu zuena.

Txistularia ere bada Sagasetari, hortaz, Leitzara lekualdatu zenean herriko txistulariak grabatu eta melodiak transkribatu zituen. Partitura horiekin txistu eskola bat sortu zuen. Ondoren Etxarri Aranatzera lekualdatu zuten, eta pilotutako grabazio eta partiturak berak sortutako eskolari oinordetzan utzi zizkion. Gaur egun, Urdiaingo apaiza da.

Urrezko Domina emateko ekitaldia 12:00etan izanen da. Egitarau osatua prestatu dute.

Omenaldi egunaren egitaraua

Urdiainen jarriko diote Urrezko domina

- **09:30** Txistularien elkarretaratzea, frontoian.
- **10:30** Kalejira udaletxe plazatik.
- **11:20** Sagasetari harrera, herriko sarreran. Segizioa udaletxeraino eta han agintarien harrera.
- **12:00** EHTE-ren Urrezko domina ezartzeko ekitaldia, udaletxean.
- **12:30** Hamaiketako Urdaingo udalaren eskutik.
- **13:00** Txistularien kontzertua herriko plazan. Sagasetari jasotako jauzi eta dantza soinuak: Jean Mixel Bedaxagar, Luzaideko bolantak, Urdaingo txistulari eta dantzariak, Ortzadar dantza taldea eta Euskal Herriko txistulariak.
- **14:30** Anai arteko bazkaria, frontoian.

Gure Zirkuak Urdaingo futbol zelaian jarriko du karpa

Irailaren 21, 22 eta 23an bost saio egingen dituzte euskal artistek. Sarrerak dagoeneko salgai daude

URDIAIN

Gure Zirkuak zirkua tradizioan oinarritutako zirkoa da, hortaz, herriz herri karpa jartzan du emanaldiak egiteko. Urdainera irailaren 21ean iritsiko da, eta bost saio egonen dira ostiraletik igandera bitartean. Herriko futbol zelaian jarriko dute karpa. Nafarroa Oinez ekimenak antolatu du ikuskizuna.

Gure Zirkuak bost saio egingen ditu Urdiainen: irailaren 21ean, ostiralean, 19:00etan; irailaren 22an, larunbatean, 17:00etan eta 19:30ean, eta irailaren 23an, igandean, 12:00etan eta 17:00etan.

Euskal artistak biltzen dituen ikuskizuna da Gure Zirkuak. Iker Galarza aktorea dago ekimenaren atzean. Arte zirzensearen estiloak biltzen dira ikuskizunean helburu bakar batekin: "ongi pasatzea eta pasaratzea. Trape-



Gure Zirkuaren karpa. UTZITAKOA

zistak, akrobatak, magoak eta pailazoak egonen dira, besteak beste, zirkuan". Galarzaren hitzetan emanaldi bakoitzean magia sortzea da artisten helburua.

Sarrerak dagoeneko salgai daude ticketea.com web orrian 12 eurotan.



BAZTERRETIK

KATRIN GINEA MUNDIÑANO

Pikotailuke

Uda honetan makina bat jaialdi eta ikuskizun ez gozatzeko aukera izan da han eta hemen. Ikuskizun mordo batez hitz egin nezake gaur, baina batean zentratuko naiz.

Abuztuan zehar Iruñean jaialdi pila ospatu dira, kaleetan eta dohainik gehienak. Jaialdi horietako bat Harresien jaialdia izan da. 3 astez kale ikuskizun andanaz gozatzeko aukera ezin hobea. Nabaria da oraingo udala kultura herritar guztiei iristearen aldekoa dela. Kalitatezko ikuskizunak denon eskura.

Kalitatezko ikuskizun horietako bat Oreka Tx-en Pikotailuke ikuskizuna izan da. Zoragarria. Ikuskizuna hitz larriekin. Abuztuaren 2an, Ziadadelako harresietan ikusi eta entzun genuena ez baitzen kontzertu soil bat izan.



Harkaitzek sortutako abesti ederrek, Harkaitzek berak eta Mikel Ugartek egurra joaz, haurtzarora eramaten gintuzten. Bi hauek eta beste adinako 3 taldekideak garai bateko jostailuz jantziak zeuden. Marionetaz bi txalapartariak, parakaidistaz Iñigo, kristalezko bola baten barruan zegoen Juanjo eta ziba edo peonza zen panpinaz Mikel. Zoragarria ikuskizunaren eszenaratzea. Jantzetatik hasita eszenografiara, argiak, ingurua... Polita benetan.

Oreka Tx-i Kalakan taldekoa izandako Thierry Biscaryk laguntzen zion abesten, eta antzezlan lanetan Garazi Pascual zirku artista bere bi kideez lagundurik.

Ikuskizun mota guztiak ditut gogoko, txikiak eta handiak, hemengoak eta hangoak. Eta inork ez du ukatuko, edo nik behintzat ez, hemen ere kalitatezko gauza ugari egiten direla.

Agian sarritan bihotzak arrazoiak baino gehiago agintzen du nigan. Eta Oreka Tx-en kasuan ere hori izan daiteke, lagun ditudalako. Bihotzak edo buruak aginduta, esan behar dut talde honen ikuskizun guztiekin gozatu dudala. Nork esan behar zidan niri Nomadak Tx pelikula ikustera joan nintzenezan Harkaitz eta Igorrekin sarritan egingo nuela topo? Eskerrik asko Patxi eta lagunei dokumental hura ikustera gonbidatzeagatik.

Los del Rayo eta lagunak Altsasuko festetan

Irailaren 16an, igandean, Altsasuko Foru plazan Los del Rayo sinfonikoa kontzertua egingen dute rock taldeak, Haize Berriak bandak eta Erkudengo Ama Abesbatzak. 19:30ean izanen da emanaldia. Sorpresak egonen direla aurreratu dute

ALTSASU

Kontzertu "berezia" da. Abenduan egin zuten aurrenekoz Los del Rayo sinfonikoa kontzertua. Altsasuko rock taldearen, Haize Berriak bandaren eta Erkudengo Ama abesbatzaren jotzeko eta abesteko modu desberdinak kontzertu batean batu zituzten. Emaitza "arrakastatsua" izan zen, Iosu Rubio Haize Berriak bandako kideak adierazi duenez. Orain, kontzertua kalean errepikatzen "apustua" egin dute. Giroa ezberdina izatea espero dute; izan ere, Altsasuko festen baitan joko dute. Igandean izanen da, irailaren 16an, 19:30ean, Foru plazan.

Urteak zeramatzen gaiari bueltak ematen, hau da, hiru musika taldeak elkarrekin zerbait egiteko nahian: "tabernetan elkartzen ginenean esaten genuen zerbait egin behar genuela, baina azkenean denbora pasatzen zen eta ez genuen egiten". Baina ia, bai. 2017an Los del Rayo,



Los del Rayo sinfonikoaren kontzertuaren entsegua.

Haize Berriak eta Erkudengo ama Abesbatzako kideak bildu ziren kontzertu bateratua egiteko. "Partiturak enkargatu genituen eta asko entseatu genuen". Hortaz, Los del Rayo abestien partiturak Jesus Mari

Beltzak, Iñaki Ramosek eta Alberto Gonzalez Urrozek moldatu zituzten.

Kontzertuaren esentzia, beraz, Los del Rayo taldea da. Baina kontzertu sinfonikoan hiru musika estilo batu dira emaitza

onarekin. Gainera, hiru taldeetako zaleak bildu dituzte. "Festetan 19:30ean joko dugu eta oraindik egunez da. Beraz, ez da gazteendako kontzertua ezta eguerdiko ikus-entzule helduendako ere". Ikus-entzule denetarikoa izatea espero dute musikariek.

Abenduan egindako bi saioetan Iortia kultur gunearen gela handia bete zen. Emanaldi arrakastatsua izan zen. Oraingoan kalean arrakasta errepikatzea espero dute. "Iruditu zitzaigun zerbait polita zela kalean egiteko, eguraldiak laguntzen badu, noski".

Sorpresak

Agertokiaren gainean hiru musika taldeko kideak egonen dira, baita artista gonbidatuak ere. Iortia kultur gunearen gelatik plazara salto egingen dute, eta horrek lekuaren beharretara egokitzea dakar: "ez dakigu nola moldatuko garen. Eszenatokia handia da, baina estu egonen gara. Moldatuko gara". Parte hartuko duten pertsona guztiak kontuan hartuta taularen gainean 300 pertsona inguru egonen direla esan zuen Luis Orduña Haize Berriak bandako zuzendariak. "Txantxa da, baina asko izanen gara".

Los del Rayo rock taldearen *Sangre en tu pared*, *El guardian de tus errores*, *Pienso en tus besos*, *No te puedo olvidar*, *Inocente pubertad* eta *Quiero decirte* abesti ospetsuak joko dituzte.

Gainera, *Aurrera Altsasu* abestia joko dute ere Enrique Zelaia akordeoilariaren eta Iñigo Arizta Ikastolako kantu taldearen laguntzarekin, besteak beste. Sorpresak izanen direla ere aitortu du Rubiok: "Kontzertuaren formatua ez da aldatu. Emanaldi bera izanen dela esan genezake. Baina, oraingoan, dantzariak egonen dira, artista gonbidatuak ere etorriko dira". Aurreratu dutenez, sorpresak "ganbararekin" eta "marearekin" zerikusia du, besteak beste.

Sinfonikoaren DVDa salgai

Haize Berriak bandaren haize eta bestelako instrumentuak, Erkudengo Ama Abesbatzaren ahotsak eta Los del Rayo taldearen gitarrak eta baxuak batuz Los del Rayo sinfonikoa kontzertua egin zuten abenduan eta, orain, zuzenekoaren DVDa salgai dago 10 eurotan.

Piezak

- Sangre en tu pared.
- El guardian de tus errores.
- Pienso en tus besos.
- No te puedo olvidar.
- Inocente pubertad.
- Quiero decirte.

Argentinatik bisita izanen du Erkudengo Ama Abesbatzak

La Platako Colegio del Centenario Abesbatzak Euskal Herriko hainbat herritan egingen ditu kontzertuak

ALTSASU

Duela 15 urte joan ziren lehenengo aldiz Erkudengo Ama Abesbatzako kideak Argentina. 2005ean itzuli ziren. Colegio del Centenario Abesbatzak gonbidatuta joan zen Altsasuko abesbatza Andeatako herrialdera. Orain, argentinarrak bisita itzuliko diete.

Argentina bisitatu zutenetik bi abesbatzek harreman "estua" izan dutela esan du Puri Alzelai Erkudengo Ama Abesbatzako kideak. Orditutik Argentinako abesbatza etortzekoa zen, baina

"hainbat arrazoiengatik" ezin izan du. Colegio del Centenario abesbatzak 25. urteurrena ospatzen duenez, aurtien bidaia antolatu ahal izan du.

Colegio del Centenario La Plata hiriko abesbatzetako bat da. 1993an sortu zen eta guraso talde batek sortu zuen ikastetxe bateko "musika ekimenak" bultzatzeko asmoz. Abesbatzen hainbat topaketa antolatu ditu Argentinan, hortaz, horietako bitan parte hartu zuen Erkudengo Ama Abesbatza altsasuarak.



Erkuden Ama abesbatza. ARTXIBOA

Argentinako bidaian Altsasuko abesbatzak hainbat herritan emanaldia eskaini zuen. Hortaz, Colegio del Centenarioren bisitak kontzertu sorta ekarriko du. Zegamako elizan igandean egonen dira, 12:00etatik aurrera;

astelenean Nafarroako Ospitaleko kaperan egingen dute emanaldia, 19:00etan, eta Ibarra astearrean egingen dute kontzertua, 18:00etan, San Bartolome elizan. Hainbat abesbatza lagunduta egingen dituzte emanaldiak.

Festetan goi mailako musika eta dantza ikuskizunak

Vendetta taldearen kontzertua Foru plazan izanen da bihar, 23:00etan. Taldeak abenduaren 28an egingen du agur kontzertua Hatortxurock-eko karpan. Agertokiak behin betiko utzi aurretik bira egiten ari da, hortaz, Euskal Herriko hiribuetako festetan eta beste hainbat herritan egon da taldea. Vendettaren kontzertuaren ondoren DJ Elepuntoren emanaldia egonen da ere Altsasuko plazan.

Igande eguerdian, 13:30ean, Aukeran dantza konpainiaren *Fusioak* ikuskizuna izanen da Foru plazan. Aukeran hogeitau urte bete ditu eta aurreneko taldea izan zen euskal dantza eta garaikidea uztartzen.

11 GALDERA

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI
ARANATZ

1 Zergatik euskara ikasi?

Reme. Etxarrikoa naiz. Euskara gutxi eta gaizki dakit. Bata ez dut ezagutzen eta aditzak eta hitzak hobeto ikasi nahi nituen, eta etxarrikoa ongi ikasi nahi nuen.

Eva Maria. Euskara zerbait gurea da. Nire etxean dena euskaraz egiten zen, baina aita erdalduna zen eta gaztelania euskararen gainean jarri zen.

Ariane. Etxarrin bizi naiz eta nire hurrekin hitz egiteko ikasi nahi dut. Batuan gutxi gorabehera moldatzen naiz. Eta euskalkia polita da eta horregatik ikasi nahi dut ere.

Asun. Seme-alabak ikastolara joaten ziren eta haiekin euskaraz hitz egiten nuenean esaten zidaten oso gaizki egiten nuela. Nik ikasi nahi dut euskara ongi eta garbi erabiltzen.

2 Euskara batua eta etxarrikoa ikasten duzue. Zenbat daramazue?

Idoia. Talde berezia da hau, bai, bietan aritzen gara.

A. Zazpi urte.

EM. Hiru urte hemen. Gazte nintzela hasi nintzen. Baina taldeak hasten ziren eta gero uzten zuten. Altsasun ere egon nintzen ni.

Asun. Ni ere duela urte bi hasi nintzen.

R. Urte bat daramat.

3 Nolakoak dira klaseak?

A. Denetarik egiten dugu. Gauza dibertigarriak daude, baita ikasteko gauza serioak ere. Edozein klasetan bezala. Gramatika ere egiten dugu. Bai-



Eva Maria Palazuelos, Reme Ulaiar, Asun Erdozia eta Ariane Paniagua ikasleak, eta Idoia Artieda irakaslea.

"Euskara ikasteak hitz egiteko lotsa kendu digu"

Asun Erdozia, Eva Maria Palazuelos, Ariane Paniagua eta Reme Ulaiar euskara ikasleak dira. Euskara "ongi" ikasi nahi zuten eta euskaltegian izena eman zuten. Euskara ikasten ongi pasatzen dute. Idoia Artieda da ikasle talde honen irakaslea

na umorearekin, beti umorearekin. Beti positibo.

EM. Niretako oso onak dira. Eta gogoekin joaten gara.

R. Beti prest joaten gara. Eta gure irakaslea oso ona da.

4 Irakasleak, beraz, laguntzen du?

Bai.

EM. Eskerrak daukagula Idoia. Dauka pazientzia asko gurekin.

Asun. Deitzen diogu gure sorgina.

5 Zer mailatan zaudete? Azterketa ofizialetara aurkeztu zarete?

A. Gutxi gorabehera denak dakigu hitz egiten. Hori da gure helburua.

Idoia. B1 altu batean daude.

EM. Probetara ez. Ez dut nire burua ikusten.

6 Aurten ere izena emango duzue, ez?

Bai.

EM. Nahi dugu ikastea. Nik beti esaten dut, kanpotik etortzen

direnek ikasten badute, nola ez dugu guk jakingo?

7 Zer espero zenuten hasi zintenean?

EM. Euskara ikastea. Ondo egon, denbora ona pasatu eta ikasi.

A. Euskaraz espresioak eta emozioak transmititzea espero dut nik. Hori nahi dut.

Asun. Hitz egitea argi eta garbi, trabarik gabe; ez urduri jarri eta azkenean gaztelaniara pasa.

8 Klaseetatik kanpo euskaraz hitz egiten duzue ere?

R. Hurrekin bai.

EM. Hurrekin hitz egiteko ohitura dut. Baina klaseak hasi nituenik askoz gehiago animatzen naiz.

9 Euskara praktikatzeko gelditzen zarete?

EM. Bueno, saiatzen gara. Idoia aurrean baldin badago gehiago saiatzen gara.

Idoia. Ikasturtea amaituta astero gelditzen gara kafetxo bat hartzeko. Lagun talde bat ere bihurtu da talde hau.

10 Zer eman dizue euskaltegiak?

EM. Seguritatea eta lotsa kentzea. Orain, dendan sartzen naiz eta dena euskaraz egiten dut. Lotsarekin ez da ezer ikasten.

R. Niretako oso inportantea da lehen farra egiten zutela eta gaizki egiten nuela esaten zidatela eta orain denek oso ongi ari naizela esaten dutela. Orain ez dut lotsarik.

Asun. Lotsa kentzen da.

11 Zer aholku ematen diezue euskara ikasten hasten direnei?

EM. Barnetik atera behar zaizun zerbait da. Benetan nahi duzulo ikasi. Obligazio bezala hartzen baduzu, gaizki. Hainbeste urtetan talde askotan egon naiz, eta ikusi dut jendea hasi eta hurrengo urtean ez zela etortzen. Konstante izan behar zara.

A. Edozein hizkuntza ikastea bezala, zaila da. Baina umeak bezala pixkanaka-pixkanaka hasten bazara, gustatzen zaizu.

R. Dena da desberdina. Baina, gure edadean gauzak gogoekin egiten ditugu, ez obligazioarekin.

Osoa: www.guaixe.eus

Lurre irudia
BERRITU

Logoak, bisita txartelak, publizitatea, flyerrak...

948 564 375
Foru plaza, 23-1. Altsasu
gk@gkomunikazioa.eus
www.gkomunikazioa.eus

gk
KOMUNIKAZIOA